

Korrika

Korrikaren furgonetan ibili ginen.
Barruan Uribe Kostan zehar egin zituen
kilometro guztien irudiak.

"la Caixa" Fundazioa

EZINDU PSIKIKO **eta GAIKO MENTAL_{en} ALDE**



Ekimen sozialetarako laguntzak

2001eko martxoaren 1etik maiatzaren 1a arte

Ezintasun psikiko eta gaixotasun mentalak dauzkaten aldeko proiektuetarako laguntzak.

Deialdia diru-helbururik gabeko erakundeei zuzenduta dago.

Informazioa: **Telefona 902 22 30 40**
www.fundacio.lacaixa.es
www.lacaixa.es



Izadia Eguzki printzen babesean, belar gozoen bila, udaberria gozatuz (Berango).

Argazkia: **Mikel Martinez**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntarismo E.B.E.
 HELBIDIA: Amati 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
 e-mail: aldizkaria@euskalnet.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
 ZUZENDARITZA: Jokin Aspuru eta Mikel Martinez
 ERREDAKZIOA: Eki Ezkerre, Andoni Urosa, Javi Gonzalez del Herrero
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
 TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Butron
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
 MARRAZKILARIA: Gorka Vazquez
 KOLABORATZAILAK: Biton Egurrea, Jokin de Pedro, Itaso Arana, Goizka Escudero, Unai Elorriaga, Algortako Bertsolari Eskola, Alaitze Kamuruaga, Xabier Poza, Itziar de Cos, Kristina Sangroniz, Janire Korkotegi
 ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza
 PUBLIZITATEA: Jon Gabilondo (94 491 13 37)
 FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: 91-1878-00
 ISSN: 1576-6799

Opak edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik erabat galarazirik dago

© BOLLINTZARRETA

Aldizkari hau Euskal Herria herri aldizkari eta euskarazko TOPAGUNEko parte da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskarazko Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
48990 Algorta



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskarazko Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



TOPAGUNEA



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

IRAKURLE,
gogoratu gauza garrantzitsu bat,
UK berez doan banatzen jarraitzen dugu eta horrela jarraituko dugu.
Aldizkaria jaso nahi duenak deitu baino (94 491 13 37) ez du egin behar. Hala ere, pozik onartzen ditugu zuen dirulaguntzak:
BBK 2095 0022 00 91 02483676



[flasha]

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAK udalerrian aisia euskaraz bizitzeko dagoen hutsuneari erantzuteko urtean zehar antolatzen dituen jardueraz baliatuz, martxoaren 9, 10 eta 11, Ipar Eskian ibiltzeko asmoz, 36 laguneko talde bat Somportera inguratu zen. Zapatuko euria eta elur urria gora-behera asteburua giro ezin hobean pasatu zuten, beste bat antolatzeko pentsatzen ari dira. Horretarako, baina, abendura arte itxaron beharko dugu.

[APIRILA]

Apirila, biribila. Ez da puntu erraza jartzeagatik. Edo ez dut nik ez jarri ez asmatu, behintzat, berri jakituria baino. Herriaren esanetan agertzen da apirilaren izenondo bitxi bori —biribila—, nabiz eta testuinguru zabalagoaren barruan izan.

Zergatik biribila? Eta... baina... zer da "biribila"? Jatorria "bil-bila" bitz elkartuan izan nabiz "bere-bila" esapidetan izan, iturburu berberera garamatza, bai bata, bai besteak. Hau da, zirkuluaren edo zirkloaren amaiera. Izan ere, udaberria sartu berri-berri da eta neguaren lastasunak, urritasunak agortu ditu joan zen uztako etekinak.

Biribila da, era berean, eguraldi mota guztiak izaten dituelako, martxo anaia goiztarragoaren antzera. Horren ondorioz, batzuk ustekabeen barrapatu obi ditu: "Apirila biribila, zerria urdandegian, botzak bila".

Eta zer eguraldi behar du apirilak? Bustia, jakina: "Apirila euritsu, urtea ogitsu". Azkenaldean, ostera, betor epelago: "Apirilaren azkenean, bostoa baritz gainean". Eta ez dadila beroegia izan, osterantzean maiatz aldean ordainduko da-eta: "Apirila bero, negua gero".

Apirila: zubi lan bori sarritan ondo egiten ez dakielako, nabiz urri-aroa delako, era bortitz bonetan ezetsi izan da: "Apirila, behar ez den bila".

JOKIN DE PEDRO

San Jorge eta Herensugea



© GORRA VÁZQUEZ 2001

[mugitzen dira]

Makarena Jiménez-Arellano
Korrika-ren arduraduna Uribe Kostan

“Zoramena izan da, baina hurrengoan tokatuko balitzait berriro egingo nuke”

Testua: **Javi G. del Herrero** / Argazkia: **Mikel Martinez**

Zamudiotik heldu zen Korrika, Erandiotik sartu zen Uribe Kostan eta Leioa, Romo, Getxo, Berango, Sopela, Urduliz, Plentzia, Gorliz eta berriro ere Urduliz zeharkatu ondoren Laukizera abiatu zen.

Sopelako AEK-ko euskaltegian aurkitu genuen Makarena Jiménez-Arellano paperez inguratuta. Apur bat berandu heldu ginen arren, han zegoen guri itxaroten, zereginez gainezka, Korrikako datuekin. *Maka* Madrilen jaio zen orain dela 36 urte baina erabat euskalduna da gaur egun. Sopelako Ikas Elkarteko kidea da eta aurtun, gainera, Uribe Kostako Korrikaren arduraduna izan da. Beraz, berarengana jo genuen zertxobait gehiago jakin nahi genuelako aurtengo Korrikari buruz.

Beno, Maka, lehenengo eta behin, balantzea; zer balantze egin daiteke orain dena pasatu ondoren? Guztiz baikorra. Azkenengoak bezala, 12. edizio hau arrakastatsua izan da, zalanza barik.

Zu Uribe Kostako Korrikaren arduraduna izan zara, ezta? Bai, koordinazio arduraduna izan naiz, hori egia da, baina jende piloak lagundu gaitu.

Zein izan da lanik neketsuena? Zalanzarik gabe kilometroak saltzea. Herri handienetan ez dago arazorik, baina herri txikietan, benetan zaila da kilometro guztiak saltzea. Adibidez, Uribe Kostan 52 kilometro saldu dira, horietatik bederatziz Urdulizen. Eta aurtun lehenengo aldiz Laukizetik pasatu da Korrika. Pentsa ezazu zein zaila egin zaigun han inguruan hiru kilometro saltzea.

Garestiak dira ala? Ez, ez bereziki. Kilometroen prezioa aldatokorra da; biztanleen arabera, eskaeraren arabera eta lekuaren arabera. Uribe Kostan adibidez, batz bestea, kilometroak 40.000 pezetatan saldu dira. Gainera, jeneralean, kilometroak ez dituzte partikularrek erositen, erakundeak izaten dira.

Adibiderik bai?




Ba, Bilbon Athletic-ek beti erosten du kilometro bat eta han askoz garestiagoak dira. Hirietan 300.000 pezetatan saldu daitezke kilometroak. Uribe Kostan adibidez, Romon Elkarrik erosi zuen bat, edota Udala Euskaltegiak..., Sopelan APA-koek, Ander Deuna Ikastolak, Embaloplast enpresak...

Eta zelan joan dira beste ekintza guztiak; Korrika txikia, materialaren salmenta...? Materialaren salmentaren datu guztiak ez ditugu oraindik bildu, beraz goiz da balantzea egiteko, baina nik dakidala nahiko ondo saldu dira gauzak. Korrika txikiak

30ean goizean ospatu ziren herri guztietan eta beti bezain ondo atera ziren.

Pozik egoteko moduan, ezta? Pozik bezain nekatuta. Korrika antolatzea zoramena da, baina hurrengoan tokatuko balitzait berriro egingo nuke. Hala eta guztiz ere, zin dagizut: sats eginda nago.

Zuk ere korrika egin zenuen? Korrika egin? Ez, nahiko eduki nuen egin nuenekin. Furgonetan egin nuen nik Uribe Kosta osoa jendea animatzen. Hori ere nahiko neketsua da! ☺



Uribe Kosta korrika

Martxoaren azkeneko egunean, zapatu goizez, "Korrika" k gure eskualdea zeharkatu zuen. Euskaltzaleek ez zuten hutsik egin eta ehundaka eta ehundaka lagun abiatu ziren euskararen lekukoaren atzetik korrika, lasterka, edo gure nagusiek esaten duten moduan, karraderan. Argazkiok, kilometroz kilometro, Erandiotik Gorlizeraingo Korrika-ren ibilbidearen lekuko dituzue.

Argazkiak: **Mikel Martinez**





Inoiz baino jende gehiagok hartu du parte aurtengo Korrikan



[Gorliz, M-31, 12:00 am]

Berango-Mexiko DF

Testua: **Unai Elorriaga**



Mikel Martinez

“Izan ere, kotxe baten barruan pentsatzen denean generalizatu egiten da, ez da pentsatzen”


Ilusio handiz hasi naiz kalkulatzen. Aurretik 6.783 kotxe izango ditut. Atzetik gutxiago: 5.907 igual. Erdian nago ni eta uda da eta 37 gradu egongo dira gerizpean eta kotxe barruan gerizpea dago baina graduak izango dira 42 edo 45 igual.

Argi dago urtzen ari naizela. Gorputza ur bihurtzen ari zait. Eta dudarik ez dago gorputzetik lehenengo urtzen dena garuna dela. Hori zientifikoki frogatuta dago; uste dut. Eta frogatuta ez badago, neuk ziurtatzen dut; ondo ezagutzen dudalako neure gorputza eta ondo dakidalako garuna urtuta daukadanean eta garuna solido daukadanean. Batzuetan gasifikatu ere egiten zait garuna, baina hori beste kontu bat da; hori, esaterako, ordenarik gabe pentsatzen dudanean gertatzen zait, edo Interneten nabilenean hiru orduz edo lau ordu eta erdiz. Baina hori beste kontu bat da, beste egoera bat. Orain kotxean nago, Berangoko gasolindegia parean, udan, eta 6.783 kotxe dauzkat aurretik eta 5.914 atzetik. Eta pentsatzea kostatzen bazait ere, pentsatu dut kotxe guztiak hondartzara doazela, Sopelanara edo Plentziara. Izan ere, kotxe baten barruan pentsatzen denean generalizatu egiten da, ez da pentsatzen, adibidez, kotxeren bat lanetik datorrela eta besteren bat amamaren etxera doala, asko maite duelako amama eta

konpainia egin nahi diolako eta amamaren kontuak entzun, gerra aurrekoak. Ni ez noa hondartzara. Egia esan ez dakit nora noan. Egia esan gutxitan erabiltzen dut kotxea eta inoiz entzun dut izorratu egiten dela kotxea erabili barik, eta kotxea hartzen dut eta martxan jartzen dut eta halaxe heldu naiz hona. Eta ez dakit nora noan.

Orduan irratia piztu dut. Eta ondo legoke irratia halako kasu batean, irradi normala edukiko banu. Baina irratian zinta zahar bat kateatu zait eta ez daukat irratia entzuterik, zinta zahar hori entzuten dut etengabe. Eta hori ere ondo legoke zinta neurea izango balitz, baina zinta ez da nirea lagun bati kateatu zitzaiolako, eta nazkagarria iruditzen zait musika, laguna izan arren batak bestearen gustuak gorrotatzen baititugu.

Orduan, buruko azken neurona belarritik rapel eginez ihes egiteko ahalegina egiten dabilen une berean, erretrobisoreari begiratu diot eta konturatu ere konturatu naiz ez noala bakarrik kotxean, atzeko eserlekuan koadrilakoak agertu direla. Eta kuriosoena da ez datozela bi edo hiru, zortzi edo bederatzi daudela. Batek esan dit “Atera karabanatik, jode” eta beste batek esan dit “Ez duzu ikusten inkomodo gaudela?” Izan ere, animoak emateko jaio dira lagunak, eta paella egunean paella egiteko ere bai. ○



Argazkiak: **Mikel Martinez**

Iraganez doa denbora* beti UHOLDEAK ERANDION 1992an

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

ATOR
azkartasuna
kalitatea
prezioa
kamisetarik onenak
preziorik onenean!
zure kamiseta,
publizitate artikulua
eta fotokopia denda

zure markarik onenak sport wear-ean

Serigrafia eta transfer

- Enpresen publizitaterako oihalen inpresioa eta salmenta, ikasketa bidaia, koadrilak...
- Niki pertsonalizatuak momentuan
- Erreklamo publizitarioak (txiskeroak, pegatinak, bolalumak...)
- Bordatu industrialak
- Aukeratu zeure kolorea arropa tintatuetan
- Grabatuak laserrean (metalak, plastikoak, egurra, larrua...)

martxoan eta apirilean
1.000 kamiseta zuri S. Star kolore batean 299 pta.tik. Guztia barne!!

ATOR

- Fotokopiak zuribeltzean
- Fotokopiak koloretan
- Enkoadernazioak, faszikulak
- Anpliazio zein erredukzioak
- Plastikazioak
- Inprentak, txartelak
- Papeleria
- Gomazko zigituak

Zure dendak hementxe daude.

ALGORTA
Algortako etorb. 106
TF.: 94 460 10 31 / Fax: 94 460 86 62

BILBO (lantegia eta biltegia)
Moncada 9, 3.
TF.: 94 410 37 07 / Fax: 94 410 34 46
e-mail: atorfym@euskalnet.net

LEIOA
Sabino Arana etorb. 86
TF.: 94 480 04 46 / Fax: 94 480 04 46

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

ZERBITZU GUNEA

EVITAME S. A.
GETXOKO ANDRAMARI

- GASOLEOA ETXEAN Campsa
- ITV AURREKOA
- NEUMATIKOAK
- MEKANIKA
- AUTOEN GARBIKETA
- OPARIK
- PRENTSA
- ALDIZKARIAK
- ELIKAGAIK

GAUEKO ORDU 1AK ARTE ZABALIK

Bilbo plentzia errepeidea, km 18
GETXOKO ANDRAMARI ☎ 94 430 15 00

[irratia]

Koska irratia 94.4 FM

Irrati libre berria eskualdean

Aspaldian bazen gurean irratia libre bat, Bost Axola. Algortato Amezti kalean zegoen ganbara batean egiten ziren irratsaioak. Garai hartan komunikabide alternatiboak eta kontrainformazio indartsu zebiltzan Euskal Herrian eta makina bat irratia libre eta fanzine sortu ziren. Urteak aurrera joan ahala, hainbat eta hainbat egitasmo bertan behera geratu ziren eta gaur egun proiekturik sendoenak baino ez dute iraun, Bilboko Tas-Tas irratia kasu, edota Hala bedi irratia Gasteiz-en. Gugandik hurbilago hortxe daukagu Pititako irratia, Santurtzikoa, gure eskualdean ondo entzun daitekeena.

Bada, fenomeno hau atzera zihola ematen zuenean, eta inguruan komunikabide alternatiborik ezaren hutsunea betetzeko asmoaz, irratia libre bat abian jartzea otu

zitzaien Algortako lagun talde bati: "Koska irratia". Orain dela urte eta erdi hasi ziren lanean. Baliabide teknikoak eskuratzeko eta lokala egokitzeko txosnak jarri izan dituzte Portu Zaharreko eta San Inazio jaietan. Denbora ez da alferrik pasatu eta jadanik emititzen hasiak dira. Oraindik programazioa osatzen dabilta, baina musika entzun daiteke 24 orduz. Goizeko 10etan, arratsaldeko 4etan eta gaueko 10etan ordu laurdeneko albistegia aireatzen dute. Esparru ezberdinak jorratu nahi dituzte, hala nola, gazteria, euskara, irnarnazionalismoa, musika, ingurugiroa... Eurak baliabideak jarri dituzte, orain programazioa betetzeko gonbidapena luzatzen diote herriko talde zein pertsoneri. ○

Harremanetarako: koska@irratia.com
199 posta kutxa 48990 Getxo



Koska irratiko mikroak zabalik aurkituko dituzu

[argitalpena]


Skate %100

"Erosión" aldizkaria

Gauza jakina monopatina osasuntsu dabilela; eskualdeko harrobitik puntako skaterrak atera dira, badaude (hobeak eta txarragoak) patinatzeo pistak Uribe Kostako ia herri gehienetan eta kaleetan gazte mordoska ikusten da patina besapean. Gora doa skatea eta albiste iturri ere bada. Estatuan bizpahiru aldizkari espezializatu daude baina antza ez dira patinatzaileak diren gure gaurko protagonisten oso gustukoak, eta horregatik, gehiegi aztertu barik, gogokak bultzatuta aldizkari berri bat argitaratzea erabaki zuten: Erosión. "Monopatinari buruzko aldizkariarik onena egin nahi dugu, zentzu guztietan" adierazi digu Carlos Terreros aldizkari bultzatzaile baten "testu eta argazkien kalitatea zainduz, skatearen mundu zabalaren isla dena, estatuko skater guztientzako erreferente". Kontua da, argitaratzen diren beste aldizkarietan, Madril zeinartzelakoetan, batez ere leku horietako skaterrak azaltzen direla "guk txokokeria horrekin apurtu nahi dugu eta irudi orokorrak eskaini gure irakurleei, bai protagonisten aldetik eta baita skatearen joeren aldetik" argitu digu Carlosek.

Aldizkariaren alma mater-a Sergio Martín gasteiztarra da, aldizkaria han inprimatzen da. Baina bere lan taldean gure inguruko izen asko aurkitu daitezke, adibidez Eduardo Saenz "Rat", Alfonso Fernández "el Lute" edo Carlos Terreros bera ere. Urtean lau zenbaki argitaratzen dituzte eta momentuz denda berezietan baino ezin da aurkitu. ○

Erosión, revista de monopatin, 275 pta.
Harpidetzak: 945 28 32 14



Carlos Terreros: skaterra, argazkilaria eta Erosión aldizkari bultzatzailea



ALGORTA
dj-ak
antzerkia
erakusketak

SATISTEGI



ADITUAK GARA
PINTXO ETA
BOKATA
BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA
☎ 94 46019 69



ORIXA
liburudenda

Alangoeta 8
(Euskal Herria kalearekin bat) Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



basurto
algorta S.L.
altzariak

telletxe 15, algorta
T: 460 71 62 - 460 42 44

Andoni Amas Etxebarria

ABOKATUA

- * Jaraunspenak-herentziak
- * Errenta aitopenak
- * Enpresa txikien kontularitza
- * Auto istripuak
- * Trafiko isunak
- * Udal lizentzien tramitazioa
- * Merkatal zein jabego ziurtagiriaren eskuraketa

Iturgitxi 6, lonja (ALGORTA)
Tlf: 94 431 900 55

VILLABOTAS
JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[musika]

Electrobikinis rock

Talde getxoztarra bigarren diskoa prestatzen ari da



Taldeakideak euren Deustuko lokalean ensaiatzen

Getxokoak dira eta dagoeneko single bat eta disko bat kaleratu dituzte. Estatu osoan zehar kontzertuak eman dituzte, ingelesez. Taldea Mirenek, Janirek, Isabelek eta Asierrek osatzen dute gaur egun. Gazteak, eta dena emateko prest.

Electrobikinis, izen bitxia, ezta?
Miren: Hasiera batean *Electra* ginen, baina kontu burokratikoengatik aldatu behar izan genuen. Hori bai! *Electra* mantendu genuen.
Definitu daiteke zuen musika estiloa? Rocka (denak aho batez).
Eragin musikal nabarmenik bai?
Asier: Jakina, bakoitzak bere talde faberittoa dauka baina esan bezala, rock-ean oinarritzen gara, gero gure ikutu pertsonala gehitzen diogu.
Ba al duzue talderen bat eredutzat?
Asier: Ez, ez dugu horrelakorik nahi.
Abestiak, nork idazten ditu letrak?
Isabel: Denok idazten ditugu. Eszenatokian, bakoitzak berarekin abesten ditu. Ikasleak ere bazarete, nola bateratu daitezke ikasketak eta musika?
Asier: Beno, ni ja ez naiz ikaslea.
Miren: Nire ustez orain momentu aproposena da talde batean aritzeko.

Isabel: Bere alde txarrak ere baditu. Esaterako nik hilabeteak daramatzat lagunekin egon gabe.

Nola bizi izan dute etxean taldearen bilakaera?

Isabel: Hasiera batean etxean ez zuten proiektua serio hartzeko, ez zuten espero taldeko betebeharrak hainbeste lan suposatuko zuenik, hau da, klasera huts egin beharra, kanpora jotzera joan... Hau txantxa ez zela ikusi zutenean, kezkatzen hasi ziren. Gaur egun egin duguna ikusita, harro daude.

Helburu zehatzik bai?

Miren: Gauzak ondo baldin badoaz primeran, bestela gozatu ditugun momentuak geratuko dira oroitzapenean.

Isabel: Disko gehiago grabatzea eta kontzertuak ematen jarraitzea. Garrantzitsuen guretzat musika egiten segitzea da.

Zein talderekin jo duzue?

Isabel: Askorekin, heavy taldeekin sarritan: "Koma", "Lujuria", "Tierra Santa"... Eta zein talderekin ez zenukete inoiz kontzerturik emango?

Asier: Ni edonorekin jotzeko prest nago.

Isabel: Ez nuke inolaz ere "Danza Invisible" rekin joko, ezin dut abeslariaren aho-tsa aguantatu. Ezta "Revolver"ekin ere. ○

[agenda]

Apirileanzer?

Liburuaren eguna

Apirilaren 21, 22 eta 23an liburu azoka Algortako Geltoki plazan, Getxoko liburutegien kalean, %10 deskontua liburuetan.

Zinema

Cinema Paradiso, ostiralero Getxo Antzokian 22:00etan.

Zine Kluba, asteazkeneko 20:00etan Getxo Antzokian; ostegunero Areetako Gran Cineman, 20:00etan.

Gorliz: apirilaren 20an, 19:00etan "Arlington road" Erakusketa aretoan.

Haurrentzako zinema

Getxo: igandero hiru emanaldi Getxo Antzokian, 12:00, 17:00 eta 19:00etan.

Berango, igandero Kultur Etxean emanaldia, 17:30etan.

Gorliz: hilak 21ean, Erakusketa Aretoan "Scooby Doo y el fantasma" 17:30etan.

Antzerkia:

Erandio: hilak 20, 19:00etan Josu Muruetan, Ketzal taldea.

Getxo: "Historias de mujeres" hilak 27 Getxo Antzokian 20:00etan.

Erakusketak

David Menendez, "Aguados" Berangoko Kultur Etxean, hilaren 29ra arte.

María Anton, "Olioak eta pinturak" Erromoko erakusketa aretoan, maiatzaren 5era arte.

Hitzaldia

Gurasoen bilerak. "Sexualitatea: nola hitz egin dezakegu seme-alabekin sexuari buruz". Apirilaren 26an, 19:30etan Berangoko Kultur Etxean.

[ohiturak]

Antzinako ezkontzak

Ezkontzarekin lotutako antzinako errito eta jaialdi gehienak galdurik daude

Testua: Akaitze Kamiruaga

Oraingoan dakargun gai honek ez dauka lotura zuzena apirilarekin, baina ezin dugu ukatu asko eta asko direla ezkontzeko udabarri garai aukeratzeko dutenak. Denok dakigu gaur eguneko ezkontzak nolakoak diren, baina zelakoa ziren gure aitita-amamenak? Orain-txe ikusiko dugu, berba gutxitan baino ez bada.

Bizitza ohikuneetatik, jaiotzarekin batera ezkontza izango da seguruenik ospatuenarikoa. Gaur egun prestakuntza ugari egin behar izaten dira ezkontzarako, baina antzina bere berarekin lotuta hainbat errito eta jaialdi egiten ziren, zoritxarrez gaur egun ia gehienak galdurik daudenak.

Euretako batzuk ezkontza aurreko egunetan hasten ziren, adibidez, *geierak* (herriko ezkontzen berri emateko pulpitutik egiten ziren deiak); senargaia neskalagunaren etxera lehenengoz joaten zenean egiten zen *botagaba*; ezkongaien familia bien arteko lotura estuzeko egiten zen *aurpegi-ikustea* (hau batez ere, ezkontzarako hitzarmena zehazteko eta opariak trukatzeko egiten zen); antzina

mutilak baino ez zuten egiten ezkontza aurreko despedida; andregaiaren arreo gurdian eroatea...

Ezkontzak bi atal izaten zituen: ezkontza bera (elizako ospakizuna) eta ezteiak edo ezteguak, haren ondorengo jai. Lehengoak ez zuten gaur egun duen besteko garrantzirik. Elizkizuna lan egunean izan ohi zen, gonbidatu gutxirekin, etxeko lanak ia eten ere egin gabe. Ezkontza egunean bazkaria egiten zuten, ezkontide barriari ongietorria emateko.

Ezkontza gehienbat neska eta mutil arteko kontua zen. Gazteria zen ezkongaiarekin batera elizarantz oinez abiatzen zena, musika eta bolanderekin, alaitasun giroan. Lekukoak ere ezkonlagunen artean joaten ziren.

Denborak aurrera egin ahala, gazte osaturiko ezkonlagunen taldea beste gizatalde batzuekin osatuz joan da. Etxeko senideez gain urrunagoko senitartekoak eta lagunak ere gonbidatzen dira, eta jende kopuruak izugarri gora egin du. Hemendik aurrerako kontuak ezagutzen dituzue, ezta? ○

Testua Ikastola Elkarteak eta Labayru Ikastegiak argitaratutako "Txulufri eta Arrosa" liburuskatik aterata dago



BILBO MICRO

"1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen"

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

KURKUDI
LIBURU DENDA

Euskarazko irakurgai guztiak!!

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Ainguruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Isabel Hormaechea

Armanirekin Guggenheim museoan

Getxotzar honek urte mordo darama modaren munduan diseinatzaile lanetan. Bere denda Algortan bertan dauka. Armanirekin ibili da Guggenheim museoan jarri berri den erakusketa prestatzen.

Testua: **Kristina Sangroniz** / Argazkia: **Mikel Martinez**

Noiz erabaki zenuen diseinatzailea izatea? Betidanik gustatu zait artearekin zerikusia zuen guztia. Barne dekorazioa ikasten hasi nintzen eta bigarren mailan nengoela diseinuari buruzko irakasgaiak genituen, gustatu egin zitzaidan eta, horrela, barne dekorazioa eta diseinua, biak egin nituen.

Nola bururatu zitzaizun denda bat jartzea? Ikasketak bukatu nituenean nire amarekin eta beste bazkide batekin enpresa bat sortu genuen. Handik denbora batera bazkide hark negozioa utzi zuen eta Hormaechea Diseño S.L denda sortu genuen.

Eta zergatik Algortan?

Algortakoa naiz. Hasiere batean Bilbora joatea pentsatu genuen baina beteta, dendaz lepo egoteaz gain, oso garestia da. Eta araroa bada ere, Bilbotik jende asko etortzen da gurera, baita urrunagotik ere.

Zertan dira ezberdinak zentru komertzialetako denda bat eta diseinuko beste bat, hau da, zuk daukazun modukoa? Beno ba, ezberdintasuna izan daiteke behar bada guk tratu pertsonalagoa ematen diegula gure bezeroei, hau da, jantziak bezero zehatzen gorputzetara moldatzen ditugula. Nire ustez, hori abantaila handia da. Gainera, aholkuak ematen dizkiegu gure bezeroei arropa kontuan. Beraz, oso prozesu pertsonalizatua da.

Zer motatako jendea datorkizu dendara? Denetarik dago. Adibidez, bizitza sozial handia duten gizonen emazteak etortzen

dira askotan, edota lanerako arropa mota jakin bat behar duten emakumeak.

Nola definituko zenuke hemen jantzen den estiloa?

Algortak, adibidez, berezko estiloa du; Aretak, aldiz, beste bat. Niri asko gustatzen zait jende gazteak hemen duen estiloa, batez ere udan. Praka labur batzuk jarrita eta kamiseta batekin irteten dira kalera eta sport estilo propioa daukate. Hemengo jendeak badaki egoerak eskatzen duen bezala jantzen, deigarria da niretzat hori. Estilo ikusgarria da.

Gaur egun dotore joateko dirutza handia gastatu behar al da?

Beno, pixka bat laguntzen du, baina ez da ezinbestekoa. Gaur egun, aukera ezberdinak eskaintzen dituzten denda asko daude gehiago baten eskura.

Armanirekin lanean aritu zara; nolako esperintzia izan da?

Lan handia egin dut beste sei euskal diseinatzailearekin batera Armaniren erakusketa prestatzen. Eta, gainera, New York-en egin zen erakusketa prestatu zuten beste sei diseinatzailearekin batera aritu gara. Nik zehazki egin dudana izan da jantziak manikietara egokitu. Beno, nik neuk eta baita beste diseinatzaileek ere.

Nolakoa da Giorgio Armani?

Gizon oso langilea da, erakusketa hasi baino hiru egun lehenago etorri zen eta jo ta ke ibili zen dena prestatzen, bere ikutu pertso-

nala jantziei ematen, naturaltasun kutsu handiaz. Pertsona miresentzari da.

Zein izango da udaberri honetako prenda?

Prenda baino nik esango nuke udaberri honetan koloreak izango duela garrantzia. Batez ere kolore biziak: gorriak, laranja...

Ez al duzu uste modak gehiegizko eragina daukala jendearengan?

Nire ustez, gero eta gutxiago. Modak moda izateari utzi dio. Jendeak oro har arropan baino, nahiago du dirua beste gauza batzuetan gastatu. Baina, bestalde, egia da orain eskaintza askoz ere zabalagoa dagoela.

Zein prendak definitzen du hobeto emakumezkoa?

Nire ustez zapatak. Emakume baten zapatek asko esaten dute bere izakeraz. Hala ere, arroparen bidez jendea ezagutzearen mitoa ez da guztiz egia, nik sorpresa asko hartu izan ditut.

Ikusten den arropari jendeak garrantzi handia ematen dio, berdin gertatzen da azpiko arroparekin?

Bai, jendeak asko zaintzen du lentzeria. Zenbat eta urte gehiago izan orduan eta ardura gehiago ikusten da kontu honetan.

Zein famatu jantziko zenuke gustura?

Niri erronkak gustatzen zaizkit. Berez ederra edo erakargarria den emakume bat jantziak ez du inolako zailtasunik. Horregatik, adibidez, Montserrat Caballé jantzea gustatuko litzaidake. ○

“Berez ederra edo erakargarria den emakume bat jantziak ez du inolako zailtasunik”



Lanbidea, prentsa argazkilaria

Egunkariak argazkiz beteta etortzen zaizkigu egunero, gehien ikusten den informazioa da. Langile horien bizimodua ezagutu nahi izan dugu, argazki horiek gure begien aurrera heldu arte atzean dagoen lana ikusi. Eta horretarako Oskar Martinez prentsa argazkilarirengana jo genuen. Egun hartan, Zaragozara joan behar zuen Athletic-en partiduko argazkiak egitera. Argazkiak: **Mikel Martinez** / Testua: **Jokin Aspuru**

Zorrotza hiltegia, haur modari buruzko argazkiak, ubarroiak itsasoan, jendea itsasadarrean arrantzan, arratsaldean Ibaiganen aurkezpen bat, eta gero Bilboko leku bitan egiten diren jaiak. Hori da Oskar Martinez-ek (Getxo, 1972) biharko egunerako agendan apuntaturik dituen gaiak. Biharamunean egunkarian agertu behar dira argazkiak. Normala da, berarekin egon garenean mobilak etengabe jo du. Aurreko egunean Armani disenatzailea helduberria zen Bilbora bere arropen erakusketa prestatzera. Lau ordu eman zituen Guggenheim museoaren inguruan zelatan Oskarrek Armaniren bila honek ez baitzuen prentsarekin egon nahi. Oskarrek –bakarra izan zen– argazkia egitea lortu zuen. “Poz handia hartu nuen eta borrela-koetan, adibidez, kalean saltoka hasten da bat. Arin pasatzen da ostera, hurrengo egunean berdin

egin behar da eta lan, baina merezi du”. Horrela ibiltzen dira prentsa argazkilaria, beti kamara aldean irudiaren bila, hara eta hona. Argazkilaritza ikasi daiteke (Oskar autodidakta da ehuneko ehun), baina argazkilaria argazkilaria-sena behar du, besteek lortuko ez duten argazkia ia edozer egiteko prest egon. Izan ere, komunikabideen eta argazkilarien arteko lehia itzela da. Asko dira ate joka dazoten argazkilaria gazteak eta denentzako lekurik ez dago. Horregatik lan baldintzak ere eskasak izaten dira, argazkilaria asko autonomoak dira eta soldata lortzeko irudi mordo egin behar izaten dute “astean sei egunetan egiten dut lan eta sarritan, zazpi, soldata ateratzeko modu bakarra da”.

Oskar duela bost urte hasi zen Deia egunkarirako lanean. Kazetaritza amaitu ostean, beka batekin hasi zen, hau da, kobratu barik. Han piztu zitzaion fotografiarako zale-atasuna eta apurka-apurka bere argazkiak egunkarian argitaratzen hasi ziren. Orain Athletic-en partidu gehienetako argazkiak egiten ditu. Prentsan gehien estimatzen direnak dira argazkiok, futbolari buruzko berriek egunkari asko saltzen dute eta. Athletic jokatzera kanpora doanean, Oskar ere hara doa. Polita dela eman dezake, hau da, turismoa egin, bazterrak ezagutu... Errealitatea, ordea, bestelakoa izaten da, lan egiteko baino denborarik ez baitu izaten. Beti presaka: autotik edo hegazkinetik, hotelera; hoteletik futbol zelaira; futbol zelaitik hotelera eta hoteletik autora edo hegazkinera. Hau da, lana baino ez. “Gainera, erantzukizuna oso handia da, egunkariak bidaltzen duen argazkilaria bakarra izaten naizelako eta buts egin ez gero...”. ○



01 > Eguna hasteko, (nola ez!) prentsa irakurri behar da. Lanerako berrien berri izan behar du Oskarrek.



02 > Ekipoa ondo aztertzen du Oskarrek bidaiari ekin aurretik, Zaragozara joango da eta ezin du ezer ahaztu.



03 > Oskar bere tramankulekin ikusten duenean, txakurrak badaki kanpora doala; ez du egun osoan ikusiko.



04 > Prentsa argazkilariek, etxean baino askoz denbora gehiago ematen dute kalean, hara eta hona.



05 > Argazki kamara bezain garrantzitsua da autoa. Zaragozarako bidean.



06 > Hotela, aterpe ez ezik lantokia ere bada. Logelan bere bulego ibiltaria antolatzen du Oskarrek.



07 > Hoteletik futbol zelaira, eta zelaitik hotelera, turismo egiteko astirik ez da egoten.



08 > Beti presaka ibiltzen bada ere, partidua hasi aurretik behintzat, lankideak zein futbol zelaiko langileak agurtzeko parada egoten da.



09 > Jokalariak berotzera ateratzen direnean hasten da Oskar bere lehenengo argazkiak hartzen.



10 > Argazkiak egiteko denbora gutxi egoten eta denek nahi izaten dute angelurik onena lortu. Bultzakadak (eta inoiz ukabikadak) sarritan izaten dira argazkilarien artean.



11 > Denetarik agin behar.



12 > Futbolak izugarri saltzen du. Komunikabideen arteko kompetentzia oso handia da.



13 > Kamara digitalekin momentuan bertan ikus daitezke hartutako fotoak. Argazkian, hartu duen irudi bat ondo ateratu den konprobatzen dabil.



14 > Argazkia ondo ateratu da, baina gola egin diote Athletic-i (Argazkia: Oskar Martinez).



15 > Ezin da arreta galdu, edozein unetan suertatu daitezke partiduko argazkia.



16 > Athletic-ek gola sartu du.



17 > Hau da Oskarrek hartu duen ospaketaren argazkia (Argazkia: Oskar Martinez).



18 > Txantxarako unerik ere egoten da.



19 > Portatila eta mobila nahikoak dira erredakziora argazkiak bidaltzeko.



20 > Zaragozak 2 - Athletic-ek 2. Partidua amaitu da bai, baina Oskarren lana ez. Oraindik irudiak erredakziora bidali behar dira.



21 > Lankideekin iritziak trukutzen.



22 > Teknologia digitalak asko erraztu du argazkilarien lana.



23 > Lehen argazkilariek negatiboak errebelatzeko laborategi portatila eraman behar izaten zuten. Ondoren negatiboak eskaneatu, eta gero bidaltzen zituzten. Garai horiek historia dira gaur egun.




24 > Irudi onenak aukeratu ondoren modenez bideratzen ditu Oskarrek argazkiak egunkarira, han zain daude.



25 > Erlojuaren aurka ibiltzen da Oskar lanean.



26 > Gaueko hamaikak inguru dira eta lana amaitu ondoren aflatzeko ordua da. Gaurko partidua arratsaldean izan da; gauetz direnean, askoz beranduago amaitzen du lana Oskarrek.



27 > Zaragoza ez dago oso urrun eta hotelean lo egin beharrean, etxerarako bidea hartzea erabaki du; lehenago erredakziotik pasatuko da.



28 > Milaka kilometro eginak ditu Oskarrek autoan, Athletic-en partidu guztietara joaten da eta.



29 > Bilbon berriro ere. Kazetariak agurtzen.



30 > Orain bost urtetik hona dabil Oskar Deia-rako lanean.



31 > Bihar beste lan egun bat izango da, ekipoa prestatzen.




32 > Errotatibatik egunkariaren lehenengo aleak ateratzen ari dira, ia ordu bata dira. Oskarrek segituan jotzen du kirol orrialdeetara; hantxe dago bere egun osoko lana.


[fotografia]



Iñaki Mintegi

Ilunpetan hartutako argazkiak utzi dizkigu Iñaki Mintegi argazkilaria algortarrak. Irudi hauek lortzeko, ilunpetan kokatzen ditu moriboak, esposizio luze bat egiten du eta tartean linterna bat hara eta hona bat astintzen du. Emaitza, irudi sorta eder hau duzue. Iñaki aspaldian dabil argazkilaritza munduan sartuta. Argazki zuzendaria izan da hainbat film laburretan eta orain dena ondo ateratzen bada, film luze bat egiteko proiektu batean hartuko du parte. ○





Liburu saltzaileak



Begoña Iraurgi

Orriak liburu-denda (Erandio)


Historia: orain dela hamabost urte ireki zuten "Orriak" liburu-denda Begoña Iraurik eta bere bazkideak. Denbora horretan oso ezagunak egin dira herri osoan, agian denda leku berean eta egokian egon delako beti: Erandioko Obieta kalean. Artea eta beste supermerkatu handien kaltea nahiko nabaritu duten arren, liburu-dendak, -irabazi gutxiagorekin, hori bai-aurrera darrai. / **Gehien saltzen dena:** testu liburuak dira gehien saltzen direnak baina, baita umeentzako liburuak ere, euskaraz zein gaztelaniaz. Azkenengo bolada honetan oso ondo saltzen ari dira Asterix eta Obelixen abentura berriak. / **Bitxikeria:** urtero, aste santua hurbildu ahala, turismo gidak gero eta gehiago eskatzen dituzte bezeroek. / **Esaldia:** "Iragarritako liburuak gehien saltzen direnak dira. Guk, dendariok, ez dugu merkaturik sortzen; eginda dator". ○



Iñaki Ondarroatik

Kurkudi liburu-denda (Algorta)

Historia: 2000ko apirilean ireki zuen Iñakik "Kurkudi" liburu-denda, batez ere, euskaraz idatzitako liburuak saltzeko asmoarekin eta zaila dirudien arren, bere helburua lortzen ari da. / **Gehien saltzen dena:** euskaraz, Jon Arretxeren *Zazpi Kolore*, Ixiar Rozasen *Edo Zu edo Ni* eta *Gorde Nazazu Lurpean*, Ramón Saizarbitoriarena. Gaztelaniaz, *La aventura del tocador de señoras*, Eduardo Mendozarena; *La caverna*, Saramagorena eta J. K. Rowling-en *Harry Potter*-en laugarren liburukia. / **Bitxikeria:** liburu-dendetan, orokorrean, euskaraz idatzitako liburu gutxi saltzen diren arren, Kurkudi-n saltzen denaren % 50 baino gehiago euskarazko liburuak dira. / **Esaldia:** "Liburu-dendaren izena Leioako toponimo bat da. Nik, Getxoko toponimoa zelakoa aukeratu nuen. Leioakoa zela esan zidatenean, kartela eginda neukan eta, beraz, horrela uztea erabaki nuen". ○



Adolfo Bolibar eta Begoña Elordui

Bolibar-Elordui liburu-denda (Areta)

Historia: hogeita bi urte beteko ditu aurten Adolfo Bolibar eta Begoña Elorduiaren liburu-dendak. Senar-emazte hauek, izentzat euren deiturak duen liburu-denda hau 1979an ireki zuten. / **Gehien saltzen dena:** euskaraz Bernardo Atxaga da nagusi. Hala ere, Txalaparta eta Elkarlanean argitaletxeen liburuak ondo saltzen dira. Gaztelaniaz, gehien iragarritako best seller-ak beste edozein liburu baino askoz hobeto saltzen dira. Momentu honetan eleberririk arrakastatsuen José Luis San Pedroren *La sonrisa etrusca* da. Stephen King, Isabel Allende, Ken Follet eta horrelako idazle ospetsuen liburuak beti bezain ondo saltzen dira. / **Bitxikeria:** hogeita bi urtetan, igandean izan ezik, liburu-denda honek ez du inoiz itxi. Salbuespen bakarra, Begoñaren aitaren hileta izan zenean. / **Esaldia:** "Hipermertatu handiek kalte handia eragin arren, negozio hau aldika bada ere, ibili badabil". ○

Datorren apirilaren 23an "Liburuaren eguna" ospatuko da eta hainbat ekitaldi antolatuko dira inguruotan. Guk, gure aldetik, Uribe Kostan geratzen diren benetako liburu-dendak bisitatu ditugu. Dendariak ezagutu ditugu eta haiek gauza interesgarri ugari kontatu dizkigute: zeintzuk dira euren kezkek, noiz hasi ziren lanean, nondik datozen denden izenak, zeintzuk diren gehien saltzen diren obrak...

Testua: **Javi G. del Herrero** / Argazkiak: **Mikel Martínez**

Olaia Oribe

Orixa liburu-denda (Algorta)

Historia: inguruotan zabaldu den azken liburu-denda da Orixa, 2000ko abenduan ireki zituzten atek eta oraindik jende asko harriturik sartzen da, liburu-denda berri bat ikustean. / **Gehien saltzen dena:** Isabel Allenderen *Retrato en sepia*, Eneko Landabururen *Cuidate compa* eta Ardi Beltzaren *Un rey golpe a golpe* dira gehien saltzen ari diren liburuak. Euskaraz oso gutxi saltzen dute eta, harrigarria, oraindik ez dute Bernardo Atxagaren liburu-rik saldu. / **Bitxikeria:** hasieran euskarazko liburuak saldu nahi zituzten, baina laster ikusi zuten horrekin soilik ezin zela aurrera egin. Orain denetarik saltzen dute. / **Esaldia:** "Lanean hasi nintzenean, irakurtzeko denbora edukiko nuela pentsatzen nuen. Guztiz erratuta nengoen baina; hemen beti egin behar da zerbait: liburuaren fitxak ordenadorean sartu, apalak antolatu eskaerak egin..." ○



Jesús Pérez

Antares liburu-denda (Algorta)

Historia: orain dela bost urte inguru ireki zuen denda Jesúsék. Liburu-dendaren izena itsasgizonek erabiltzen duten izar batena da. Aspaldian Jesúsék izen bereko *fanzin* batean idazten zuen eta handik atera zuen dendarako izena. / **Gehien saltzen dena:** poltsiko liburuak dira salduenak. Euskaraz, Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga eta Jon Arretxe dira nagusi. / **Bitxikeria:** literatura tailer bat sortu zuten Jesúsék eta bere laguna den Ramiro Pinillak (Nadal Sariaren irabazlea). / **Esaldia:** "Artea-k arazo bi ekarri dizkigu liburu-denda txikiei: alde batetik, haiek saltzen dituzte etekin handiak ematen dituzten liburuak eta bezeroa gugana liburu arraroen bila dator. Eta beste aldetik, jendeak egun osoa ematen du han. Ez da bakarrik Artea-k saltzen duena, baizik eta herritik eramaten duen jendea. Orain kaleetan ez dago lehen zapatuetan egoten zen mugimendu handia". ○



Carmen Castells

Oroldi liburu-denda (Areta)

Historia: liburu-denda hau klasikoa da Getxo osoan, norik ez du erosi liburu-uren bat "Oroldi"n? Inguru honetako liburu-dendarik zaharrena da. 1975ean -hura urtea!- ireki zuten Carmenek eta bere lagunak liburu-denda Algortako Basagoiti kalean. Hamar urte geroago, bigarren liburu-denda, "Oroldi 2", ireki zuten Aretetan. / **Gehien saltzen dena:** Nobel eta Planeta sariak jaso dituzten liburuak dira arrakasta gehien daukatenak. Hala ere, eskaintza oso zabala da Oroldin. Euskaraz, berriz, oso gutxi saltzen da. Arraroa iruditzen arren, denda ireki zutenean askoz gehiago saltzen zela esan digu Carmenek. / **Bitxikeria:** "Oroldi" hitz euskalduna aukeratu zuten Carmenek eta bere lagunak denda bataiatzeko berbaren soinua gusatzatzen zitzaielako. / **Esaldia:** "Denda zabaldu genuenean, orain dela 25 urte, muga gurutzatu behar izaten genuen liburu onak ekarri ahal izateko". ○



Laura Mintegi



“Maitasuna mundua bezain zaharra izango da, baina olatu bakoitza bezain berria”

Idazle

Testuak: **Esti Ezkerra** / Argazkiak: **Mikel Martinez**

Lizarra, 1955. Zazpi urte igaro dira Laura Mintegik *Nerea eta biok* kaleratu zuenetik, denbora luzea baina tartean tesia burutzen ibili da. Oraingoan maitemintzeari buruzko nobela batekin itzuli da: *Sisifo maiteminez*.

Zergatik maitasuna eta zergatik Sisifo?

Gaztea nintzela Albert Camusen liburua irakurri nuen, eta Sisiforen ideia hori buruan geratu zitzaidan. Sisifok adierazten du zigorraren barruan noberak erabakimenerako ahalmena daukala beti. Nahiz eta zigor bat egon, hala ere, norberaren esku geratzen da behin eta berriz menditik jaitsi, harria hartu eta gora joatea. Eta maitasunean hori baino ez da gertatzen. Nik askotan esan dut: maitasuna mundua bezain zaharra izango da, baina olatu bakoitza bezain berria.

Sisiforen moduan sentitu izan zara noizbait?

Guztiok dugu horrelako zerbait. Nahiz eta esperientzia izan, behin eta berriz erortzen gara bai akats, baina baita, azierto berberetan. Gero eta gehiago dakigu, baina ez dugu gauza handirik ikasten.

Nobelarekin maitasunari buruz gehiago ikasiko zenuen, ezta?

Zenbait gauza deskubritu ditut. Adibidez, askotan ez dela oso garrantzitsua maitemintzearen objektua, sentimendua bera dago pertsonen gaitetik. Horren froga da askotan eta, batez ere, emakumeen kasuan, nahiz eta harreman bat kaltegarria izan, hurrengoan ere gizon mota berberarekin maitemintzen direla. Nolabait maitasunarekiko programaturik gaude.

Behin betiko maitasuna existitzen al da?

Bai, existitzen da edo existitu daiteke. Honekin ez dut esan nahi monogamian sinesten dudarik. Monogamia kontzeptu moral da, eta ni kontzeptu etikoaz ari naiz. Etikaren aldetik bai noski, existitzen da bizitza osorako maitasuna, beste gauza bat da nor duen hori ezagutzeko zortea. Baina neurri batean norberaren esku ere badago. Maitasuna amaitu egiten da norberak hala erabakitzen duenean, eta irauten du irauten dezan nahi bada.

Eredu errealetan oinarritu zara nobelako protagonistak egiteko orduan?

Guztiz imajinarioak dira. Ni ez nago inondik inora islaturik. Are gehiago, kontu handiz ibiltzen naiz neure burua disimulatzen. Egia da pertsonaia horiek neu ere izan naizela, baina nire une eskizofrenikoetan. Hau da, sormen lanean une eskizofrenikoak eduki behar dira, ez bakarrik norbera ez den norbait asmatzeko, baizik eta idazten den bitartean haiek izateko. ○

Sisifo maite minetz (Txalaparta) Laura Mintegik argitaratu duen laugarren eleberria da.

bi

Lasarte-Oria, 1972. Kazetaritza ikasi zuen Ixiar Rozasek. Irakurtzea oso gogoko du, baina nahiko anarkoa dela dio: hiruzpalau liburu batera irakur ditzake, gaia eta estiloa edozein izanda ere. Orain gidoilari dabil ETB-ko *Teilatupean* saioan.

Pertsona osoa izatera beltzeko, bizitzan biru gauza egitea beharrezkoa dela diote: zubaitz bat landatu... Horietatik bat bete duzu...

Egia esan, nobela atera nuenetik nire bizitza ez da gehiegi aldatu. Poztasun hori barruan dago, baina uste dut beste gauza batzuekin ere lor daitekeela. *Edo Zu Edo Ni*-k neure buruarengan nuen ziurtasuna indartzen lagundu dit, eta idazten jarraitzeko asmoa dudanez, oso baliagarria izan zait.

Zerk bultzatu zituen “Edo Zu Edo Ni” idaztera?

Istoria hori kontatzeko gogoa neukan, eta neure buruarentzat erronka handia izan da lehen lerrotik amaierara arte. Gustura idatzi dut, eta hori argitaratzea sari bat izan da niretzat.

Istoria oso intimoa kontatzen duzu, zertan oinarritu zara sortzeko?

Nobela ez da batere autobiografikoa. Baina simbolikoki nire barne mundua agertzen du. Gaztetan entzundako istorio bat bueltaka nuen buruan, eta Zugarramurdira egin nuen bidaia batean ideia hura berreskuratu egin nuen. Gauzak lotzen joan nintzen, eta pixkanaka istorioa sortuz joan zen.

Grazia protagonista emakume beldu bat izanik, zaila suertatu zaizu bere azalean sartzea?

Hasieratik erakargarria egin zitzaidan nirekin zerikusirik ez zuen pertsonaia bat sortu, eta bere bitartez hitz egitea. Pertsonaia eraikitzeke lan handia egin dut, eta neure buruari galdera ugari egin dizkiozt Graziana hori hobeto zehaztearren. Prozesu magikoa izan da.

Kritika oso onak jaso dituzu...

Banekien irakurzaletasun handirik ez zuen jendearengana errazago iritsiko nintzela, oso hizkuntza errazean idatzi dudalako nobela. Baina jaso ditudan “adituen” kritikak, agian horiek ez nituen espero.

Hurrengo nobelari beltzeko prest?

Laster haur eta gazteei zuzenduriko liburu bat aterako dut. Orain ipuin liburu batekin nabil, astiro, baina, hori bai, idazteko gogoz. ○

Edo Zu Edo Ni da Ixiar Rozasek argitaratu duen lehen nobela (Erein). Liburuak emakume heldu baten maitemintze istorioa kontatzen du.

Ixiar Rozas



“Lehen lerrotik amaierara arte, nobela hau erronka handia izan da”

100 urte 100 aurrpegi

Honezkeroko XXI. mendean bizi gara. Aurrekoa joan zen, historia da. Eta historia horrek lekukoak ditu. Mikel Martinez-ek gure eskualdeko 100 elkartu ditu, joan den mendeko urte bakoitzean jaiotako bana.

Idea, errealizazioa eta argazkiak: **Mikel Martinez**



[1896] **Elisa Uriarte 105**
Leninek alderdi bolchevikoa sortu zuen. Gaur egun bzikirik dirauen Uribe Kostako pertsonarik nagusiarena jaiotako izen: Elisa Uriarte.



[1900] **Sorne Unzueta 101**
Zeppelin-ak lehenengo hegaldia egin zuen; Oscar Wilde hil zen.



[1902] **M. M. Guerrero 99**
Gaztelania ez zen beste hizkuntza batean egiten duten irakasleak zigortzeko aghindua.



[1903] **Sotero Merino 98**
Abertzalek arakassia tzela lortu zuten. Sabino Arana hil zen Sukarrietan.



[1904] **Diego Gonzalez 97**
Jose Antonio Aguirre, Euzkasko lehenengo Amundasen esploratzaile norvegiarra Hego Polora allegatu zuen.



[1905] **Isabela Escameaga 96**
Eibariko arma laniegian Star pisibola automatikoa sortu zuen.



[1906] **Adelino Cabañez 95**
Ramón y Cajal-ek Nobel saria eskuratu zuen. "Tizur" euzkarako lehenengo opera.



[1907] **Leonor Asua 94**
"Revista Internacional de Estudios Vascos" sortu zuen. Urtziok eta Lacortok.



[1908] **Fernanda Ayo 93**
EEBBetan Ford enpresak senen egrindako lehenengo autoak, lan kontzeptu berria.



[1909] **Mari Cruz Lezama 92**
"Lege lehenet" EEBBetan, Ibar Poluaren korakoa. S. Freud-en psikanalisisaren leona.



[1910] **Matilde Arroyo 91**
Thomas Edison-ek sonuzko zinema asmatu zuen. Haime euzkarazko zanak jarrioa dibekatu zuten.




[1911] **Orosia Ramos 90**
Alemanian espioratzaile norvegiarra Hego Polora allegatu zuen.



[1912] **Leonor Meabe 89**
"Titanic" transatlantikoak iceberg bat jo eta hondoratu zen, 1.500 lagun hil ziren.



[1913] **Serafina Juanillo 88**
Engrazoa Aranzadien zuzendria zela. "Euzkara" argintaria kaleratu zuen Bilbon.



[1914] **M. L. Hernandorena 87**
Lau urtez luzatu zuen lehen Mundu Gerra hasi zen, ez zen azkenean izango.



[1915] **Miliagros Ortiz 86**
Txilen munduratu zen diktadore handi bat: Augusto Pinochet.



[1916] **Justa Langarte 85**
"Euzko Deya" aldizkari abertzalea plazaratu zen.



[1917] **Emilia Agirre 84**
Abertzalek arakassia tzela lortu zuten hauteskundeetan.



[1918] **Pepita Enriquez 83**
Alemanak eta alialuek armistizioa sinatu Espainako gobernuak euzkarazko liburak debekatu zituen.



[1919] **Maria Olamendi 82**
Emiliano Zapata, iraultzaile mexikarra tiroz hil zuten. Euzkaltzandisk, "Euzkera" aldizkaria.



[1920] **Puri Vigilia 81**
Aita Barandiaranek "Euzkari Foklore Ekareak" sortu zuen.



[1921] **Enrique Montano 80**
Aldizkari berri bi sortu ziren: Gure Herria Baionan eta Ariga Dorostian.



[1922] **Sabina Anton 79**
R. M. Azkuek "Cancionero popular vasco" lan errabioa argitaratu zuen Barzelonan.



[1923] **M. Saiz de Baranda 78**
"Xabierro" haurrentzako euzkarazko liburua argitaratu zuen.



[1924] **Florentina Masa 77**
Arte Modernaren Museoak sortu zen Bilbon.



[1925] **Herminia Santidrain 76**
Espainako gobernuak euzkarazko liburak debekatu zituen.



[1926] **Isabel San Pelayo 75**
John L. Baird-ek telebista asmatu zuen. Marilyn Monroe izango zena, jaiotako.



[1927] **Javier Amezaga 74**
Cuban Fidel Castro jaiotako zena. Lehen "Euzkara eguna" antolatuko zena.



[1928] **Juanita Saitua 73**
Hollywood-eko lehenengo Oscar-ek banatu ziren. Fleming-ek penzina deskubritu zuen.



[1929] **Amelia Carreta 72**
Espainako lehenengo Futbol Liga. Athletik-ek irabazi zuen. Crack-k Wall Street-en



[1930] **A. Cabeza Zarraga 71**
Ungari, jokatu zuen Futbol Munduko Txapelketaren lehenengo irabazlea izan zen.



[1931] **Vicenta Garcia 70**
Thomas Edison, inoiz egon den asmatzaile handienetakoa hil zen.



[1932] **Pilar Hernández 69**
Lehenengo "Aberri eguna" ospatu zuen Bilbon, milaka lagun elkartu ziren.



[1933] **Helena de Troya 68**
Adolf Hitler "canciller" aukeratu zuten Alemanian.



[1934] **Luis Pozo 67**
Gerra iraultzaile Asurlesen. Francoren enpresak, Sozialis eta abertzaleen atoketak.



[1935] **M. A. Askasibar 66**
Urtarraren Ban Elva Presley rock izarra jaiotako zena. Gurean, Jean Etxepare idazlea hil zen.



[1936] **Iñaki Orueta 65**
Arabak, Bizkaia eta Gipuzkoako autonomia estatutak onartu ziren. Franco gerra puztu zuen. Francoren aghindua.



[1937] **M. Anton Ormaetxe 64**
Conrado Legidoak, Gernika botbardatu zuen Francoren aghindua.



[1938] **Fernando Mas 63**
Espainako gobernuak euzkarazko izenak jarzea debekatu zuen.



[1939] **Jose Bretos 62**
Bigarren Mundu Gerra hasi zen, 40 milioi pertsonak hilak.



[1940] **Juanita Aledo 61**
Gaztelera ez zen beste hizkuntza erabiltzea debekatu. Bugs Bunny, antzia jaiotako.



[1941] **Antonia Guerrero 60**
Aguirre lehendakari Ameriketara heldu zuen naziegandik ihesi.



[1942] **Francisco Suarez 59**
Ekin argitakerke euzkalduna sortu zuten atzerrian Francoren aurka.



[1943] **Aurora González 58**
Bibon Bizkaiko Arte Elkartea sortu zen.



[1944] **Lourdes Urbaxerra 57**
"D" eguna. Alaiuen tropak Normandian lehorratu ziren.



[1945] **Julio Molano 56**
Nazio Baituan Enkulturatzaile (NBE-ONU) sortu zuten. Hirtekek bere burua hil zuen.



[1952] **Jesus Cuesta 49**
Bilbon ikasle batzuk Ekin talde politikoko abertzale klandestinoak sortu zuten.



[1959] **Lourdes Ortiz 42**
ETAren sorrera urtea.



[1966] **M. Miguel Urbeastera 35**
Euskal Abertzale Bataitzailearen partekatzean sartu, Mikel Laboa eta Berto Larruburu.



[1946] **Pili Hernández 55**
Joseba Eizola atxilotu zuten Donostia Akzai Oneren lehenaren kurria jarraitzeko.



[1953] **Mari Luz Urbano 48**
Donostia Nazioarteko Zinemaldaren lehenengo edizioa egin zen.



[1960] **Josu Amezaga 41**
339 abadek Euskal Herrian ezarritako zapakuntza salatu zuten.



[1967] **Marcos Broto 34**
Eusebio Cha Guevara hil zuten Boliba, Erroch, Carro Blanco lehenaldikaride komandatu zuten.



[1947] **Mari C. Eskurza 54**
Al Capone, inoziz egon den mafiosoak ospetsuena, afiliazioa jola hil zen.



[1954] **Santi Güena 47**
Lotolako Herri Irratari elkarrak emiltzeko debekua.



[1961] **Armando Amutio 40**
Gagarin sovietarra, munduko lehenengo astronauta bihurtu zen.



[1968] **Alberto Zaballos 33**
Kazetari nazionala Preisen, 1980ko misaioz Martin Luther King Nizoa Biko saia estali zuten.



[1948] **Alberto Aledo 53**
Atheistek 50 urte bete zituen. Bilanztzaia 5 ligo eta 18 kopa.



[1955] **Javier Amezaga 46**
Albert Einstein zientzialaria hil zen. Disneylandia parkea zabaldu zuten.



[1962] **Lino Astobieta 39**
36 urte zituela, Marilyn Monroe hil zen. Kubako misalen krisia.



[1969] **Patricia M. Gaztariaga 32**
Arztekoak eta Alpin-ek lehenengo argia zabaldu zuten.



[1949] **Arantza Azkunaga 52**
"Guda Hotz" hasi zen. Azkunen Gobernadore Zuzen, Olerizero debekatu zuten.



[1956] **Rosa Amutxastegi 45**
Munduko Euskal Kongresua antolatu zuten Parisen.



[1963] **Jose A. Mier 38**
Bomba atomikoa botu zuten Hiroshiman: 80.000 hildako, Kennedy hil zuten Dallas-en.



[1970] **Akaizte Kaminuaga 31**
Ekoizteko bera buruari su eman. Zon Francoren aurkeztean "Gora Euzkadi sekular" oharra.



[1950] **Sabini Unibaso 51**
Ekoizle zuzendakari berronaitzaileak antolatzen hasi zen.



[1957] **Ana Eiordui 44**
CEE Komunitate Ekonomiko Europar deitakoak jaso zituen.



[1964] **Mikel Aizabal 37**
Frankistak iraili euskelidun batzuk ibi zizuten.



[1971] **Iraide Aurrekoetxea 30**
Publi Pizaso 90 urte zituela hil zen. Concorde-aren lehenengo hegaldiak.



[1951] **M. Mertzze Alcocer 50**
Grebak Bikotik eta Gipuzkoan, 2.000 atxilotu.



[1958] **Mertzze Liarena 43**
Tallidak bere obra erakutsi zuten New Yorken.



[1965] **Ricardo "Full Monty" 36**
Lehenengo bidoitapera azaltzen da. A. Laponov-ek lehenengo ibilaldia epekoan.



[1972] **Gatzone Etxebarria 29**
"Ispide oinarria" Inar Herriaren Lurrikara Murgatuak, 10.000 hildako.



[1973] **Borja Ramos 28**
Carro Blanco hil zuten ETAk. Veñan-en su etena sinatu zen.



[1980] **Miren Barrenetxea 21**
Gernikako Estatutua onartu ondoren, Euzko Legebiltzarrak sortu zen.



[1987] **Jon Ander Egizabal 14**
Pregin-ek eta Gorbachov-ek START amaieratu zuten. Bereziki mugibetarako akordioa sinatu zuten.



[1995] **Paula Urzua 7**
Bizarrak Laponov Euzkara Elkartea jaso zen. Bilboko Metro inauguratu zuten.



[1974] **David Velez 27**
Nixon dimisituzera behartuz Watergate kasuaren ondoren.



[1981] **Aitor Bermejo 20**
IHES gaitortasuna identifikatua. Tejeroren estatu, joepe sataikara.



[1988] **Julen Bilbao 13**
Udalen Euskaratzen Mankomunitatea (UEMA) sortu zen.



[1996] **Jon Amezaga 6**
"El niño" fenomeno meteorologikoak sarraskia eragiten zuen Ameriketara.



[1975] **Zurife Zabala 26**
Txiki eta Otegi lueltatuak, Franco hil zen. Juan Carlos I Espainiako erregia izendatu zuten.



[1982] **Ivan Alba 19**
Sozialistek Espainiako hauteskundeak irabazi zituzten. Futbol mundialak.



[1989] **Esti Barrenetxea 12**
Salman Rushdie-ri heriotz zigorrari. Berlingo harrestaren erroketak.



[1997] **Ane Arteta 5**
Migue Arizar Blanco ziregizona hil zuten ETAk. Lady Di printzesa auto istripuan hil zen.



[1976] **Txomin Luis 25**
Montejurran kanitak tiroketa, hildako bi eta hanbat zauritu.



[1983] **Amaia Erdozain 18**
Euskal Herrian uholde oso larriak abutzuan. Bilbo urperlan.



[1990] **Paola Pardo 11**
27 urte karzitan eman ondoren Nelson Mandela askatu zuten. Irak Kuvaiten sartu zen.



[1998] **Enar Aldama 4**
Lizarrak-Garazi akordioa, ETAk su-etena. Athletiek 100 urte bete zituzten.



[1977] **Johana Vidal 24**
Ikurriria legezatu zen.



[1984] **Angel Escalante 17**
Athletiek Kopa eta Liga irabazi zituen.



[1991] **Sofia de la Sota 10**
Golfoko gerra hasi zen. Sobiet Batasunaren zatiketa. Alta Etxerandaren hil zen.



[1999] **Jon Otxantozana 3**
Ipar Irlandan Stormont-eko bake akordioa sinatu zen. UK Urbe Kostako aldatzea jaso zen.



[1978] **Egoitz Iturregi 23**
Euzkadi ez ez ezan zion Konstituzioari.



[1985] **Marta Fernandez 16**
Mikel Zabala hil arte torturatu. Gorbachov Sobiet Batasuneko buru izendatu.



[1992] **Asier eta Gorka 9**
Joko Ompioak Barzelonan. Irutziaren jaurri irabazi zuten. Babe akordioa El Salvador-en.



[2000] **Paula Costelo 2**
Bigarren "Intifada" Palestina. Mundua EEBBtik hauteskuntzarako emaitzen zuten.



[1979] **Unai Agirre 22**
Estatutua onartu zen. "Glaosy" ekologikista hil zuten politikak Lemoizen aurkako marthan.



[1986] **Ariz Astobieta 15**
EAJ sartu eta alderdiak utzi zituzten. EA sortu zuten.



[1993] **Mikel Unzueta 8**
Lazkao baki hil zen. David Iratxe sektaio 98 kode hilik EEBBtik.



[2001] **Jone Urtega 1**
"Behi eroren" krisialdia. Txina eta EEBBtik anteko krisi diplomatikoa.

Gure **berbakere**² **BIER ARTEN**

Testua: **Xabi Bilbao**

Berbaldi akaberan zer esan

- agur
- hurrengoráten
- ikusi ártén
- bier ártén
- zapáturarten
- ondó ibilli / bai, bardin
- íkusko gara
- geitú e? / bai, géitukotzut
- górantzik emon (dánori, etzékori) / bai, zure partez
- mosú emon, mósuk emon (amari, dánori)

Asteko egunek

- astélena edo illena
- martítzena
- egústena
- éguena (egúena)
- baríku
- zapátu
- doméke

Nos? astélenan, martítzenan, egústenan, éguenan, baríkun, zapátun, domékan.

Nosárten? astélenararten, martítzenararten, e.a.

Nósti(k)? astélenati(k), martítzenati(k), e.a.

Adibide batzuk

- Bueno ba, nabiko arrégla du mundu.
- Bai, sasoi ixengo da etzera jóteko. Ze ordu da, ba?
- Hamábik laster.
- Ezta íxengo! Bánoa txispa hotzean. Agur!
- Agur, bai.
- Nik égi dínozut pa, ni tíñótelez pasa da!
- Egi dínozule? Íxilík zauz.
- Pregúntaotzezu edozeñeri.
- Zúez éleite berbarik íñ. Bánoa etzerántza.

OHARRA: Azentuk imini duz berba batzuten, eta beste batzuten ez. Azenturik ez dekon berbe esakunen erdin badau ez da azenturik ahoskatu behar; ostera, berba hori esakunen akabuko bada edo koma baten aurren badau, azentu ahoskatu behar da azkeneko bokalan ganen. Hau astiroau ikusko du beste aldi baten.

foto

XABI ER

ARGAZKIAK



Doctor Landa z/g
Tfn. 94 676 03 09
SOPELA

[akabuko punte]

Francisco & Josefina

Errebiste onetan, andragixon euskaldun peto-peto pare bat ekarri du: **Francisco Garai, 81 urteko eta Urdulizko, eta Josefina Legarreta, 80 urteko eta Larrabasterrako.** Euren gurasok bere bertokok ixen siren. **Oiñ biak Erromon bixi dire. Bisitze dustin euskaras íñ deure alkarregas eta kontu da se ondo baino obeto itten deurela. Amaka gause konta doskues, baya danak esin dogus emen batu eta bi elegidu dogus ale onetarako: eurek íñ eudesen bearrak. Beste errebiste batzuten bere egongo dire geugaz.**

Testua: **Alberto Gonzalez Castro** / Erretratu: **Mikel Martinez**

FRANCISCO, KOBRAĐORE

FG: Algorta edo Areatati a, Berangorako ori, bai. Ori linea egin neun leleko, badakixu, Algortati a Areatati, a, Bilbora, a...

UK: *Trolebuse díñosu?*

FG: Berangon a, autobuse. Oiñ dausenak. Ori inaguratu sanen ni egon nintxen.

UK: *Ori inaguratu sanen su yon sintxen?*

FG: Bai, kobradore, bai.

UK: *Selao jente yoten san Bilbora? Ser itten?*
FG: Jente? Obreru yoten san asko! Erandioti yoten sirenak a, galletas Artiach Desture, fabrikan, osea, Desture asko, neskak, enbrak, bearren. Serara... Toldos Golloaga beran dau; fabrika asko egon san, Zorrozaurren, Elorrietatik Desture bitarten, Toldos Golloaga, jente asko an bere, Torre Madariaga, jente asko ibiltten san, asko. Autobuse edo trolebuse asko. Eta gero, beste aldetik, Portugaldeteri, Portugaleteti onantza pasten siren ona serak a... "interinas", au iru edo lau trolebus beterik Algortara, asko. Eta gero, Neguriko kriedak otzarakas, Areatan erosi jenerok, plazan, denok otzarakas, igual bakotzak ekartein iru edo lau. Len, politte ixeten san ori, jente asko. Ordun errel bi kostaten san.

UK: *Bije?*

FG: Areatati a serara Bilbora peseta bi. Ordun itten san errekaudasíño, nik lenengo mile peseta egin nendusenen, terrible! Gausa itzela! Mila peseta, e!, errekaudasíño. Biletetek egoten siren a, *15 sentimos, 50 sentimos*, pesete, peseta andiena, mila peseta ta, gero, ni ya erreтира in nintxen, igual egitten gendusen 25.000 peseta, akabuko urten 25.000-26.000, or.

UK: *Nos erretiratu sintxesan?*

FG: Ni, *ocontentan*, ogei urte. *38 años* kobradore, se esku arten senbet diru pasata!

JOSEFINA, YOSKILLE

UK: *Yoskille ibil sintxen su, esta?*

JL: Bai, bai.

FG: Onek ikisieun yosten inok irekatzi barik.

JL: Bai, muñeka bateas. Ari iten neuntzesan a trapu seratxuk, muñeka bateri. Eta yoateko yoskeran, yoateko yoskeran eta yoan nintxen eta lau ilabeterik bein yon nintxen, aurok baino beste giau jakin nendun an.

FG: Ideoso ixen san.

JL: Edosein jenero, gixonan alkondarak, gixonan prakak nai enbran erropa dusti... "*Boda de oro*" nos in gendun?

FG: Urte bi.

JL: Iru urte edo, eta arako in neusen... Oin yakin beres ser dan, oin es da eroten ta, baya, konbinasiño, krespoiak eskonteko krespoi asko gona bi, gero jantzi bi eta abrigo bi, sera, biontzat, erropa dana, eskonteko erropa, eta gero a erregala euskusan mantillek, olau mantille politte eta airi olau imin neutzen, olau a olau gausatxo bet imiñi eta ala ba... politte eh?

UK: *Etzen itten sendusen orrek jenerok?*

JL: Bai, etzen, dusti etzen. Ama aberatz batek, enbra batek -se esne eroten geuntzen ta- esan eusten: "*vas a hacer como este vestido, come este vestido vas a hacer. Te doy el modelo para que bagas igual que este vestido*". Eta igual egin neutzen, iguala. Baya abrigo bi, jantzi bi ...

UK: *Patroi barik?*

JL: Esebes. Oiñ nik aa sekuleko jenero dustik itten neusen.

FG: Es, baya idiosa da, e! Onek es dau elektrisiste ber ixen oiñ arten. Elektrisistarik bere es.

JL: Nire alabak bere mañe itzela artu deu, nik irakatzí. Eta gero, ademas es yosten bakarrík. Nik jenero dustik yakin neusen berez ikisitte, etorten jatesan burure; sera, jartsek a, eskus punture eta dusti itten nendusan

FG: Eta eskerra da

JL: Bai eskolan yo in eustén, eskerreko eskues ibiltten nintxelako yosten.

UK: *Selan esaten dosu "zurdo" eta "diestro"?*

FG: Eskerra nas eta eskoia.

[bertoko euskeraren gainean]



JL: Ikis dot yaten eta seran, baya sekulan beres yosten eskerras. Esin nendun ikisi sera, eskoias yosten.

UK: *Eta eskribiduten bai?*

JL: Bai eskribiduten eskoias, eta yo itten eusten atzamarratan, atziñe, badakixu, eskolan eta, baya esku eskeras yosi.

FG: Idie (idea), buru, terrible! Ori elektrisista, usaba (ugazaba).

JL: Oiñ esebes.

FG: Oiñ esin dus

UK: *Len jente geiauk eskatuten eun yosteko?*

JL: "*Coser de fuera*"? Bai. Oiñ, intte daus, ademas. Len, es. Len yosi itten gendusan ese karu ixete san arropa eta inor es san egoten saltxen iñeko arropa, antzine. Kontu ataraixu senbest urte diren!

FG: Beno, atziñe oiñgo les. Oiñgo beste arropa.

JL: Klaru! Atziñe jantzi bi eta igual, pasaten sendusen urtek! o

"Portugaleteti onantza pasten siren ona serak a... 'interinas', iru edo lau trolebus beterik Algortara"



[euskara **normalizazioa**]

KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Euskaraz dihardugun erakunde eta enpresok ezin gara kanpo harreman gehienetan euskaraz aritu: hornitzaileekin, administrazioarekin, finantza entitateekin...

...hori aldatzeko banan-banan saiatu ordez, hobe da elkarrekin egitea. Horretarako, Euskaraz Bizitzeko Hitzarmena sortu da. Bertan une honetan 38 elkarte eta enpresa gehi UEMAK osatzen dituen 42 udal gaude eta konpromisoa hartu dugu euskarazko harremanak lortzeko behar diren ahaleginak egiteko.

Ezinbestekoa da euskararen normalkuntzarako funtsezkoak diren gizarteko arlo guztietan euskararen erabilpena bermatzea: administrazioan, komunikabideetan, hezkuntzan, kulturaren, legerian eta jakina, enpresen munduan; horixe da, hain zuzen, Euskaraz Bizitzeko Hitzarmenaren erronka, apurka-apurka, euskara guztion eguneroko tresna bihurtzea, konpromezu zehatzen bidez. Zenbait arlotan hutsune handia somatzen da, eta gehien agertzen dituen sektorea lan mundua da. Ekonomia gizarte baten garapenaren ardatza da. Ardatz horren inguruan sortutako zirkuitu ekonomiko-komunikatiboetan erabiltzen den hizkuntza izango da gizartea benetan baliagarri eta prestigioso irabaziko duena, eta gure hizkuntza oraindik mundu horretatik at dago. Begibistakoa da, normalkuntza prozesurik ez dela burutuko eremu hau euskalduntzen ez bada.

Nori zuzenduta dago: dagoeneko euskaraz funtzionatzen duen orori, bai elkarteek, bai norbanakoei.

Bete beharreko baldintzak hauek izango lirateke: Elkartearen kasuan, partaide edo langileen %75a euskalduna izatea (lortzeko bideetan egotea) inprimaki, errotulazio eta publizitate euskaraz edo elebitan egotea. Norbanakoen kasuan, euskaldunak izatea.

Nortzuek osatzen dugun Hitzarmena:

Lehenago esan dugun moduan hainbat euskara elkartek, kultur taldek UEMAKo udal eta hainbat profesional eta enpresak; hona hemen adibide batzuk Ameztoti anaiak, Antza Inprimategia, Artez Euskara Zerbitzua, Berdin Kolektiboa, Deustuko Ikastola, Elhuyar, Etxepe S.A., Euskaldunon Egunkaria, Iosu Serigrafia, Iñaki Esnal Aseguruak, Karlos Pinturak, Kopibat, Kukubiltxo, Urbieta Kopiak, UZEI, Xaho Abokatuak, Zart Komunikazioak... eta berauekin batera Bizarra Lepoanek ere izenpetu egin du hitzarmen hau. ●

Edozein zalantza, informazio eta laguntzarako hemen gaituzte: **Bizarra Lepoan** euskara elkarte Karitatea, 1 - 10. bulegoa (asteazkero 19:00etatik 21:00etara) 48990-Getxo Tfno: 653 741 845

Euskaraz Bizitzeko Hitzarmena: Dendarikale, 9-1 Bilbo

[uribertsoan barrena]

Arabianbadire

Oraingo honetan zazpigarren alabari zuzenduko diogu begirada. Arrazoi bat baino gehiago dago horretarako. Araban lan handia egiten ari da bertsolaritzaren suspertze eta sustatze lanean. Adibidez, lau bertso eskola daude egun: Aramaiokoa, Agurainekoa, Kanpezukoa eta Gasteizkoa. Arabako bertsolari txapelketa ere martxan da.

Testuak: **Josu Arroio, Xabier Paia eta Joseba Santxo**

Gasteizko eskola ez dugu nolana hikoia. Izan ere, 60 bat lagun batzen ditu. Horrez gain, ikastetxeetan ere ari dira bertsolaritza lantzen, eta hortik kimu berriak sortuko dira, dudarik gabe. Bestetik, dagoeneko martxan da Prudentzio Deuna – Estibalziko Ama XII. Bertso Saria. Izen ofizial horren atzean Arabako bertsolari txapelketa dago, eta aurtengoa hamabigarrena izatea lehenago lan asko egin izanaren adierazle da.

San Prudentzio Sariaren historia

Araba aldean irakasle, dinamizatzaile eta bertsolari lana egiten dabilen Oihane Perek azaldu digunez, orain dela 8 bat urte, kanporaketa bakarra jokatzeko zen eta hortik zuzenean pasatzen ziren bertsolariak finalera. Gaur egun, osterara, txapelketa hiru faseetan jokatzeko da. Aurtengoan, kasutarako, kanporaketa bi jokatu dira, 16 bertsolarirekin. Kanporaketa bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatu da finalurrekoetara -2 beraz eta beste 4 puntuen arabera. Finalurre bakoitzean aurreko edizioako 3 finalista gehi kanporaketetatik pasatutako beste 3 bertsolari lehiatuko dira. Azkenik, finalurre bietatik 6 bertsolari pasatuko dira finalera. Halandaze, kopuruari erreparaturik, 22 bertsolarik dihardute txapelketa honen inguruan. Entzuleen kopuruak ere nabarmen jo du gora aspaldion eta lekuak txiki gertzen hasi dira. Mailari dagokionean, berriz, esan daiteke orain arteko kanporaketak onak izan direla.

Arabarren autonomia

Jakina da oraintsu arte Arabak eta Bizkaiak elkarrekin antolatzen zutena herrialdeko txapelketa. 2000. urtetik aurrera, berriz,



Serapio Lopez kantuan, aurtengo San Prudentzio Sariko giroan. Atzealdean «Katxo» adi.

Arabak eta Bizkaiak zein bere bidea hartu zuten, eta horren ondorioz, aurtengo San Prudentzio Sariko lehenengo bertsolari biak Euskal Herriko Txapelketa Nagusira pasatuko dira, Bizkaiatik pasatu beharrik gabe.

San Prudentzioko parte hartzaileen profila


Pisuan eta nortasunean gora doan txapelketa honetara aurkeztu diren bertsolari gehienak 25 urtetik beherakoak dira: gaztetasuna nagusi. Jatorriaren gorabehera zehaztu behar dugu ez dela arabarra izan behar bertan parte hartzeko. Aski da bertsolaria izan eta Araban bizi izatea. Algortako Bertsolari Eskolakook badakigu hori. Izan ere, gure eskolako Andere Arriolabengoa eta Ekaitz

Larrazabal «Katxo» esku hartuta daude aurtengo txapelketako kanporaketetan.

Lehenengo eta oraingo

Argi dago baba bakar batek ez duena babatzarik osatzen. Arabako bertsolaritzan eta bertsogintzan lan egin duten bertsolari batzuk aipatuko ditugu segidan, egungo egoera itxaropentsua hobeto ulertzen lagunduko digutelakoan: Abel Enbeita, Rikardo Gonzalez de Durana, Juanjo Respaldiza, Serapio Lopez, Zigor Enbeita, Oihane Perea, Asier Otamendi, Asier Iriondo... Zorionez, orrialde honetan ez daukagu lekurik gaur egun horretan dabilzan guztien izenak aipatzeko. ○

“San Prudentzio Saria Arabako txapelketa nagusia da, eta mailan zein garrantzian goraka doa.”



10eko txikian Jon Maia

- 1) Hasi al da Maiarentzat Euskal Herriko Txapelketako aurrendenboraldia?**
Bai, hasia dago honezkerok. Momentuz, mentalizazio lana eta gimnasia pixkat baino ez dut egin.
- 2) Belodromoan txapela jantzita ikusten zaitu jende askok...**
Nahiago nuke etorkizunean esaldi horren aditza lehenaldian jarri behar izango balitz... baina finalean sartuta ere pozik izango naiz.
- 3) Jon Maiak ukitzen duen guztia urte bihurtzen omen da...**
Gure alokairuzko etxera etorri eta ez zenuke berdina esango...
- 4) Gasteiz, ikasle garaia, parrandak, bertso tramak... nola gogoratzen duzu cocktail hura?**
Ondo astindua, izotz puska batzuk tartean, lastotxo batez lagundua eta lagunarteko giro ederrean edandakoa. Oso zapore onekoa gogoratzen dut.
- 5) Adierazpen askatasunaren borroroek bertsolaritza ere zanpatuko al dute?**
Lehen ere izan dira borroroak eta ez dute lortu horrelakorik. Borroroek gure bertsoen biktima izaten jarraitu beharko dute.
- 6) Jon Maia, garaia, alaia... bertsolaritzako azken galaia?**
Esaldi serio bat baino, lau errima ikusten ditut hor. Hori bai, oso errima zuzenak dira.
- 7) Aukeratu bakarlanerako gai, neurri eta doinu bat.**
Algorta, goizeko ordu biak, gai librean, habanera.
- 8) Noizko Maia idazlearen lehen best-sellerra?**
Hori jakin nahian dabil zuen herriko lagun handi bat. Liburua bidean dago.
- 9) Zumaiako Telmo Deun trainerua maldan behera, eta zu bertsotan. Ez al dizu lotsarik ematen?**
Lotsa baino, bekaitza ematen dit trainerua uretan ikusten dudak bakoitzean.
- 10) Eman segida Algortako Bertsolari Eskolakoek bota dizuten puntu honi:**
Azken aldiran sasoiko dabil / Uribe Kostan bertsoa: / izar txikiez bete duzue / euskaldun unibertsoa; / zaleetan zein bertsolaritan / punta puntako multzoa, / ez da alperrik izan urtetan / egindako lan zintzoa. ○

Xenpehar dokumentazio zentroa



Bertsoeskolatuz⁴ DOINUA

Bertsoa osatzen duten elementu guztiek badute halako batasun bat euren artean, eta doinua aztergai dugun honetan ere, bi kontzeptu azalduko zaizkigu elkarri loturik: doinua eta neurri mota.

Bertsolaritzan doinuak ehundaka ditugu; neurriak, osterara, pare bat dozena izango dira. Neurri mota batzuek doinu desberdin asko daukate. Beste neurri batzuek doinu mota gutxiago daukate. Badira, azkenez, doinu bakarra duten neurriak ere, adibidez, *Esnasaltzailearena, Iparragirrearena...*

Musikari erreparaturik, doinu zaharrak gehienak kantatzeko errazak dira. Ez dugu ahaztu behar doinuak letraren laguntzailea izan behar duena, eta ez alderantziz. Beraz, doinu kantaerazek letra jantzi ez ezik, asko lagunduko digute silabak neurtzen.

Doinu desberdin gehien zortziko nagusiak dauka: *Pello Joxepe, Frantses euskaldun bat, Loriai udan...*

Zortziko txikiak ere ez dauka doinu gutxi: *Maritxu nova zoaz, Xarmegarria zira...*

Hamarreko nagusian nork ez du ezagutzen *Batetik kanporaketa* doinua.

Bestelako doinuak ere badaude, neurri berezietan erabiltzen direnak: *Aizak bi mutil mainontzi* (6 puntukoak), *Ikusten duzu goizean* (7 puntukoak)...

Ariketa: Jon Maiak orrialde honetarako jator-jator osatu digun bertsoa erabiliko dugu neurriaren eta doinuaren ariketa proposatzeko. Lehenbizi, zein bertso neurri den asmatu behar duzue eta, gero, doinu bat proposatu bertsoa kantatzeko. Bertsoa ozenki kantatzea erremate polita litzateke doinuaren lanketa biribiltzeko.

*Azken aldiran sasoiko dabil
Uribe Kostan bertsoa:
izar txikiez bete duzue
euskaldun unibertsoa;
zaleetan zein bertsolaritan
punta puntako multzoa,
ez da alperrik izan urtetan
egindako lan zintzoa.*

Obarra: hurrengo alean ez duzue Bertsoeskolatuz atalrik aurkituko. Baina ez larritu. Haren lekuan Bertsozlozifikoa atal berritua topatuko duzue. Izan ere, bada sasoia bertsolaritzaren inguruan dakizuen guztia erakusteko. Izen biburri borren azpian bertsolaritzari buruzko testu batekin egingo duzue topo. Era guztiak galderak egingo dizkizuegu. Erantzun zuzenak atalean bertan emango ditugu, zuek ez dituzue beharko baina!



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Lupina

Garesti dago lupina baina zeozer berezia ospatu behar badugu, ahaleginak merezi du. Prezio merkeagoan pis-zifaktoriakoak eros daitezke, baina Kantauriko lupin eder baten aldean..., alde handia dago. Oso erraz prestatu daiteke labean erreta. Labea 180 gradutan ipini eta bertan oliba olio apur batekin lupina sartu eta egin arte mantendu. Bestetik, zartaginean errebitoa prestatuko dugu. Oliba oliotan, berekatza ale batzuk ondo txikituak eta pipermin hiru ale jarri. Berakatzaz urretatu baino lehen, basoerdi ardo zuri eta beste horrenbeste ozpin gehituko diogu. Su ahulean mantendu bost bat minututan eta ondoren lupinak labean bota duen zukuarekin nahastuko dugu. Saltsa hori labetik ateratako lupina egin berriaren gainean bota eta kitto. Edateko, txakolina. ○

osagaiak (2 lagunentzat)

Kantauriko lupina bat (kilokoa) • lau berakatz ale • biru pipermin • basoerdi ardo zuri • basoerdi ozpin • olio • gatza



MIKEL MARTINEZ



itsaso arana / jolastoki-koa

Kaba edatea osasunerako onuragarria da

Bartzelonako Unibertsitateko ikerlari talde batek, Kaliforniako Unibertsitateko ikerlariekin elkarlanean, egin berri duten estudio baten arabera, ardoari eza gutzen zaizkion onura beste dakartzio kabak osasunari. Kabak, ardo bezala, gaisotasun kardiobaskularrak prebenitzeko ahalmen handia duela frogatu dute. Ahalmen hauek baliatzeko, egunero kopa bete kaba bi edan behar dituzte gizonezkoek, eta bat eta erdi emakumezkoek, metanola metabolizatzea gehiago kostatzen zaie eta.

Ikerketaren arduradunek ardoak kabak baino antioxidante gehiago dituela onartu zuten baina, hala ere, gorputzean duen eragina antzekoa da. 47 kaba erabili zituzten ikerketa hau egiteko eta *coupage* edo mahats mota ezberdinak dituzten kabak, oxidazio maila handiagoa dutela ondorioztatu zuten, hau da, osasunarentzat hobek direla. Orain, kaba botiletan onura horiek azalduko lituzkeen kontraetiketa jartzea aztertzen ari dira.

Ardo burbuilatsu hau urte osoan zehar edan daiteke, eta ez bakarrik Gabonetan. Aperitibo moduan primerakoa da. Eta gainera osasuntsua! ○

ARDOEN GAINEKO GALDERARIK BADUZU:

Faxa: 94 491 13 37 / e-posta: aldizkaria@euskalnet.net



Erandioko txakolina

Urtero ia 2.000 litro txakolin bikain egiten ditu Juan Inazio Arestik bere Erandioko mahastietako fruituekin. Inguruotan txakolin egileak gehiago badira ere, "Bizkaiko Txakolina" jatorri izendapena lortu duen bakarrenatakoa da bera.



Mikel Martinez

Josu, Juan Inazioaren semea arduratzen da salmentaz

Erandio hitza entzuten dugunean lan-tegiak, industria... datozkigu gogora. Baina Erandio oso herri handia da eta badauka nekazal gune zabala bere Goierri. Hantxe dauzka, hain zuzen, bere mahastiak Juan Inazio Arestik, txakolin-gile eta euskaltzale amorratuak. Izan ere, hamar urtez euskara irakasle ibili zen Derion berak sortutako euskaltegian. Gaur egun jubilatuta dago, baina ezin esan beharrik egiten ez duenik; txakolina egiten du, sagardoa ere bai, eta gainera soro dotore bat lantzen du.

Bisita egin genion bere etxaldera eta bertako euskara ederrean, esan zigun lehenengo gauza "Neuri erretraturik ez, gero!" izan zen. Eta jakina, konformatu behar. Bere mahastiak erakutsi zizkigun: hondarribi zuri eta *foie blanc* mahats motak. Baina baditu bestelako mahats mota landatuak: *sauvignon*, *pinot blanc* edota *reslie*. Orain hamar urte landatu zituen lehengo mahastiak eta ordurik hona beti sano izan ditu. Eta hori ez da gauza erraza, mahastiak oso delikatuak direlako eta izurriteek erraz akabatzen dituzte, egunero jagon

behar dira. Txakolina ona egiteko sekretua gauza jakina da, prozesu osoa mimitzea, baina bat aipatzekotan, Juan Inaziok mahats ona, ustelik ez eta apurtu gabekoa erabiltzea dela esan zigun. Modu berean, oso garrantzitsua da mahatsa biltzeko aukeratzen den unea, puntu-puntu egon behar du. Hori jakiteko berak erre-faktometroa darabil. Izan ere, Juan Inazio oso sibirita da eta produktu hobea lortzeko bada, onena erabiliko du beti: kortxorik onena, filtrorik egoikenak eta hemen aipatzeko lekuri ez dagoen makina bat tramankulu. Gauzak horrela eginda, emaitza primerakoa baino ezin da izan, eta horrela da: ardo zuri garbia, edateko erraza, atsegina eta dotorea. Ulegarria da Juan Inaziok eskariari aurre egin ezin izatea; txakolina egin baino lehen badauka dena salduta. ○

Aresti Txakolina Etxebazarre Mesone bidea 1 Goleiri, Erandio T: 94 467 48 44



EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarrerriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA EZARKETAK



T: 430 53 46

Sarrikobaso 15

48990 ALGORTA



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

Erosketa etxera eroaten dogu!!

ORDUTEGIA

Lan egun eta zaphatetan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

DENA-ONA
supermerkatua

Gatzarriñe 5, ☎ 94 676 19 99 LARRABASTERRA

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

[aitormenak]

Ikerne Goikoetxea

Koreografoa, dantzaria, aktorea, txiste kontalaria...

17 urte zituela buru-belarri sartu zen dantzaren munduan.artzelanon egin zituen bere hastapenak eta bertan bi urte egon eta gero Madrilera abiatu zen ikasketak sakontzera eta dantzari profesional bezala lan egitera. Gaur egun telebistan txistek kontatzen ditu eta *Betimu* saioko koreografiak prestatzen.

Testua: **Itziar de Cos** / Argazkia: **Mikel Martinez**

Telebista mailan zein izan zen zure lehenengo agerpena?

Sara Montielek aurkezten zuen *Sara y punto* saioan hasi nintzen dantzatzen, Madrilera joan behar izan nuen. Honen ostean, urte bete eman nuen leku batetik bestera: Paris, Alemania, Belgika... Azkenean, Amsterdamen geratu nintzen urte batez.

Atzerrian hainbat urte igaro dituzu, baina azkenean berriro etxean...

Bai, guztira zortzi urte eman nituen etxetik kanpo. Baina lurrak beti deitzen du eta azkenean berriro Euskal Herrira itzuli nintzen eta antzerki ikasketak hasi nituen.

“La Monda” saioan parte hartu duzu...

Antzerki ikasketak egiten nengoela “La Monda” programatik deitu zidaten saioaren koreografiak eta *kareta* egiteko. Beraz, telebista eta antzerkia tartekatzen nituen.

Eta orain, zertan zabilta?

Telebistan sartuta nago buru-belarri; hala ere, ez dut antzerkia utzi, aukera berriren baten zain nago beti.

Telebista eta antzerkiaren artean, alde handia dago, ezta?

Bistan da. Telebistan dena askoz azkarragoa da eta ez dago lankideekin egoteko denbora askorik. Gainera, antzerkia bi edo hiru hilabete irauten duen prozesua da eta egunero egon behar dugu pertsonaia jakin bat prestatzen. Talde laguntasuna sakonagoa da, telebistan, aldiz, ezin daiteke denbora galdu produkzioa oso garestia delako; gauzak azkar egin behar dira, halabeharrez.

Famatuen mundua, nolakoa da?

Ez dago denborarik haiekin harremanetan jartzeko. Programara heltzen gara, eta bakoitzak badu bere zeregina, ez dago harreman sakon bat lortzeko denborarik, lana amaitu orduko etxerako bidea hartzen dugu.

“La primera noche” programako “La barra de la risa”n agertzen zara. Nola hasi zinen horretan?

Aktore den lagun batek txistek kontatzera joateko proposatu zidan. Buelta asko eman nizekion ideiare eta azkenean proba bat egitera animatu nintzen. Dirudienez, zuzendariaren gustukoa izan nintzen eta programan hartu ninduten.

Zelan saioko lankideekin?

Oso ondo. Oso gustura nago beraiekin. Guztien laguntza izaten dut, gainera badaude batzuk profesionalak direnak eta beste batzuk ez. Ni ez naiz profesionala txistek kontatzen eta horretan asko lagundu eta animatu naute. Egun osoan gabilta txistek kontatzen, sarritan ez dakigu zein txiste kontatu dugun eta zein ez.

“La barra de la risa”z gain zertan ari zara orain?

“Betimu” saioko koreografiak egiten ditut ETBn. Nire ustez dantza gehiago egon beharko luke telebistan baina ballet batek

aurrekontu handia eskatzen du eta telebistak ez du horretan dirurik inbertitzen.

Non zabilta gusturago?

Leku guztietan. Gustura nago dantza egiten eta baita interpretatzen ere. Txistek kontatzearena esperientzia berria izan da niretzat. Hasieran piska bat larritzen nintzen, baina gero..., primeran. Gustura nago leku guztietan. Ezberdinak dira. Lana etengabe aldatuz gero, batek ez du aspertzeko astirik.

Txikitatik zenuen dantzari izateko ametsa?

Txikitari “Zoom” balleta pilo bat gustatzen zitzaidan, edo “Un, dos, tres” saioan agertzen zena, baina ez dut inoiz helburu zehatzirik izan. Nik dantza egin nahi nuen. Gero aukera ezberdinak agertzen hasi zitzaizkidan. Gaur egun, ezin izango nuke gauza bakarra aukeratu.

Dantzari izatea... gatxa, ezta?

Ez da erraza. Ordu asko sartu behar dira eta gainera, lantzen den proiektua ondo zein txarto atera daiteke. Niri gustatzen zaidana jazz-a da eta jazz eskaera gutxi dago hemen.

Jazz klaseak ematen zenituen. Zergatik?

Denbora nahikorik ez neukalako. Telebistan asko aldatzen dituzte ordutegiak gainontzeko programazioaren arabera. Beraz, ezin da inolako planik egin. ○

“Telebistan ezin daiteke denbora galdu, produkzioa oso garestia da eta; gauzak azkar egin behar dira, halabeharrez”



CALENDOS RIKI

UMEA GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

AREETA

I

Iñaki Bitxitegia



OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

Algorta



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

[horoskopoa]




URA

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Minberakor eta suminkorregi zabilza azkenengo bolada honetan eta hurrengo egunak onak izan litezke jarraera hori alde batera uzteko eta ondo pasatzeko. Diruari dagokionez behintzat, ezin kexatu!



AITZURRA

(Martxoak 21 apirilak 19)
Nekatuta sentituko zara, baina kontraesankorra irudituko arren, hobeto sentituko zinateke kirol apur bat gehiago egingo bazenu. Gainera, zure bikoteak eskertuko lizuke.



GARIA

(Ekainak 19 uztailak 18)
Lan egiteagatik ez da ezer gertatzen. Gainera behar duzun dirua irabazteko modu bakarra izan daiteke. Bestela, ez daukazulako, ez negarrik egin. Maitasunari dagokionez, garai latzak datozkizu.



META

(Irailak 17 urriak 16)
Maite zaituen horrek, malko bat baino gehiago isuri araziko dizu. Kontuz beraz zure bikotearekiko harremanetan. Bestelakoan, sasoi bete-betean zaude: osasuntsu, baikor... Bizitza gozatzeko prest. Zure esku dago...



OTSOA

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Sasoi bete-betean zaude eta, gainera, harremanetan ederto moldatzen ari zara azkenengo bolada honetan. Zoritxarrez, zure gastuak kontrolatzen hasten ez bazara, diru kontuetan gauzak okertu daitezke.



HOSTOA

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zaindu zure gastuak, ezin duzu gastatu ez daukazuna. Elikadura zaintzea ere komeni zaizu. Kiloak ez dira galtzen ura edanez soilik. Ez sinestu telebistan kontatzen duten guztia.



LASTOA

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Ardo goxoak lau begi eta oinik ez. Parranda ugari, ezta? Ba, esaera zahar hau gogoan hartu. Benetan uste al duzu gustuko duzun horrek jaramonik egingo dizula, mozkor eginda tabernaz taberna baldin bazabiltza?



HAZIA

(Urriak 17 azaroak 15)
Benetan maite baduzu esaiou: zabaldu zure bihotza eta ea zer gertatzen den. Hobeto sentitzen al zara horrela, ezer egin barik? Kontuz diruarekin. Espero ez duzun gasturen bat agertu liteke...



ADARRA

(Otsailak 19 martxoak 20)
Ez izan horren suminkorra zure bikotearekin. Gainera, zekena izatea ez da gauza ona. Ez daukazuna ez gastatu, baina noizena behin eskua poltsikora eramaten baduzu erronda ordaintzeko izan dadila.



EGUZKIA

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Energiaz gainezka zabilza. Ea zertan gastatzen duzun! Zure bikoteak opariren bat eskertuko lizuke. Maiteminduen egunerako ez zuela nahi esan zizun, benetan sinestu zenuen?



IRATZEA

(Abuztuak 18 irailak 16)
Nekatuta sentituko zara, baina arazoak ahazteko, etxean telebista ikusten geratzea agian ez da behar duzuna. Irten; zure ametsa kalean egon daiteke. Edo telebistan bilatzen jarraituko duzu?



NEGUA

(Azaroak 16 abenduak 20)
Dena kontran daukazula uste duzu? Horrela al dira gauzak? Hobe zenuke zure burua aztertzea. Batzuetan, beti ez esateagatik, erruduna norbera da eta ez mundua. Arazorik badaukazu, eta hala da, lagunengana jo horretarako daude eta.

AZERI ETA BIVAFEGO LEIHO INDISKRETOA



MYNGIA OKINDEGIA

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako ogia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



Bittor Egurrola

Berangoko ikastola 1970

Bai, Berangon hogei urtez ikastola bat egon zen. Hasierako bost urteetan udalareko (argazkia hartua dagoen tokian) gela batean hartu zituzten eskolak urteek. Ondoren, kooperatiba bat osatu zuten gurasoek eta egoitza berria hartu zuten. Hantxe hamabost urte gehiago iraun zuen ikastolak. Ez da erraza izaten esperientzia hartako sortzaile eta bultzatzaileen izenak aipatzea, beti izenen bat ahazten da-eta. Bat aipatu nahi dugu, eta horretan ez gara erratuiko: Lorenzo Salaberria abade durangarra. Gero, jakina, berangotar askok lan itzela, ederra eta eskergaria egin zuten ikastolaren alde.

Erretratu, ezkerretik eskuinera eta oplik behera: Arantza Diez, Nekane Eguzkita, Igone Zunzunegi, Idoia Solozabal, Jon Zelaia, Mikel Magunazelaia, Josu Gonzalez, Jon Aldatz, Gaizka Lasa / Mari Bego Udondo, Eva Udondo, Paulino Gonzalez, Pablo Apraiz, Valentin Aguilar, Inigo Aio, Aitor Aurrekoetxea, Juan Carlos Leon, Nekane Berasategi, Julen Leon, Mariasa Maguregi, Mari Kontzi Madariaga, Lina (andereñoa) / Agurtzane Sangroniz, Idoia Mentxaka, Mariasun Inbaurla, Maitilde Aguilan, Bernardo Aguilan, Maribe Larrabe, Pabli Inbaurla, Barbañas, Jose J. Madariaga



eusko
alkartasuna



ibarretxe

B *vida* *diálogo*
elkartasuna *respetua*
A *bizitza*
solidaridad *respeto*
S *elkarrizketa*

[flash back]



Oparitu beharrean gaude
mahai gáineko erloju zoragarria
Tel. 555 341 409. Luis

EGIZU LEKU BAT ETXEAN. BBK-K INTERNET DAKARKIZU ETA.

Mahai bat erabiltzeko moduan baduzu, etorkizunera konektatzeko beharrezko guztia duzu. Gainerakoa eskura jarriko dizugu.

● **20.000 pezeta merkatuko dizugu** ordenagailua erostea, BBKrekin finantziatuz gero (Konekta Zaitetz programaren 25.000 pezetako zenbatekoaz gain).


● **Internet-erako doako sarbidea** eta doako posta kontua.

● Horrez gain, hasteko, **gida bat** emango dizugu opari, ikastea samurra izan dadin: zure kabuz.

● **Finantzaketa ezin hobea:** 200.000 pta.rainoko kreditua, oso interes apalean (euribor + 0), erraz-erraza gerta dakizun. UTB: %5,29*.

bbk =

Internet Bizkaira heldu da.



* UTB hau, 00/11/16ko urte beterako euriborraren arabera dago kalkulatuta (% 5,166).